

Barometroa 2022

Donostiako garapen
sozioekonomikoari
buruzko txostena



donostiasustapena
fomentosansebastián

Aurkibidea

0/ Sarrera	3. or
1/ Enplegua eta kohesioa	5. or
1.1.- Biztanleria.....	5. or
1.2.- Hezkuntza eta formakuntza	11. or
1.3.- Enplegua.....	13. or
2/ Zerbitzuen hiria	17. or
2.1.- Udalerriko BPGa.....	17. or
2.2.- Donostiako enpresa-sarea	18. or
2.3.- Udalerriko ekonomia-sarearen sektorekako analisia.....	20. or
2.4.- Ezagutzen intentsiboak diren zerbitzuen hiria	21. or
2.5.- Ekintzailtza	24. or
2.6.- Hiri-ekonomia: Merkataritza eta Ostalaritza	25. or
3/ Zientzia eta Berrikuntzaren hiria	29. or
3.1.- Hiriko I+Ga	29. or
3.2.- Ekintzailtza berritzailea	31. or
3.3.- I+Gko enplegua.....	31. or
3.4.- Talentuaren sustapena hirian	33. or
3.5.- Berrikuntza, eredu ekonomikoaren apustua	34. or
4/ Lurralde begirada.....	37. or
4.1 - Gure auzoak: Kohesioa eta profil sozioekonomikoa	37. or
4.2 -Lurraldea eta bertako jarduera ekonomikoa.	40. or



0.- Sarrera

Donostia Sustapenak 2022ko Hiri Barometroaren edizio berria aurkezten dizu.

2022 a trantsizio urtea izan da, eta aurrerapen handiak egin dira ekonomia eta enpleguaren arloan. Berrikuntza eta ezagutzan intentsiboak diren zerbitzuak bultzatu dira ere.

Hala, hiriak % 3 baino gehiago egin du aurrera 2022. urtean, bai enplegurari, baita BPG errealarari dagokionez, eta EBaren antzeko langabezia-tasa izatera iritsi da.

Gainera, Donostiak I+Garen inguruan duen nazioarteko posizioa sendotu du, ekintzailatza berritzaileko proiektuei laguntza emanez, talentu gaztea leialduz eta erakarriz, eta atzerrikaririk datozen I+G inbertsioentzan hiriaren erakargarritasuna handituz.

Aurten Next Generation EB funtsen urtea ere izan da, Gipuzkoako hiriburuaren berrikuntzaren aldeko apustua nabarmentzen duten funtsak.

2022ko Hiri Barometroak udal-errealitate hori deskribatu, kontatu eta alderatzen du, lau gai-multzo hauen inguruan egituratuta¹:

1. Enplegu eta kohesioa: Lehen kapitulu honek hiriko demografia aztertzen du eta hiria zahartzen ari dela nabarmentzen da bertan. Halaber, zifrek argi uzten dute azken urteetan gazteen kopurua jaitsi egin dela, eta biztanleriaren gaztetzea migratzaile taldeen eboluzio positiboaren ondorioa dela.

Kapitulu honetan gaur egungo ikasle-komunitatearen zifrak, hiriak lortu duen hezkuntza-maila altua eta hiriak, bai unibertsitatean, baita Lanbide heziketan ere, eskaintzen duen formakuntza eskaintza zabal eta dibertsifikatua aztertuko ditugu.

2. Zerbitzuen hiria: Bigarren kapituluak udalaren BPGaren hazkundera eta biztanleko BPGaren maila altuak erakusten ditu. Gainera, hiriko enpresa-parkearen tamaina eta ezaugarriak aztertzen dira sektorialki. Analisi Sektorialak, ezagutzan intentsiboak diren zerbitzuei,

jarduera ekintzaileari eta hiri-ekonomiaren egoerari (merkataritza eta ostalaritza) erreparatuko dio.

3. Zientzia eta Berrikuntzaren Hiria: Hirugarren kapituluak azken urteotako I+Garen bilakaera aurkezten du, esparru honetan izan diren inbertsioak, ekintzailatza proiektuak eta enpleguaren aurrerapen nabarmenak aztertuz.

Kapitulu honetan, gazteen talentuaz hitz egiten da, berrikuntza-polo gisa duen posizionamenduari eusteko funtsezko elementu gisa, bai eta emakumeek I+G eta prestakuntza-adar zientifiko-teknikoetan (STEM²) duten parte-hartzeaz ere.

4. Lurralde begirada: Kapitulu honek hiriko auzoen arteko kohesioa aztertzen du eta, horretarako, eremu bakoitzean bizi diren donostiarren profil sozioekonomikoa erakusten duten zazpi adierazle sintetiko erabiltzen ditu. Lurralde begirada hau osatzeko, udalerriko ekonomia-ehunaren dinamikak aztertu eta enpresa-sarearen erradiografia egiten da bai lurzoru urbanizatuan baita hiri inguruetako eta aldirietako industrialdeetan ere.

Hiriko taula, grafiko eta mapa desberdinen bidez bildu eta irudiztatzen diren datu guztiak Udala, Euskadiko, Estatuko eta Europako estatistika ofizialetan oinarritzen dira.

Alde horretatik, Donostia Sustapenak eskerrak eman nahi dizkie, beste behin ere, udaleko sail, erakunde eta instituzioetatik urtekari berri hau egiteko aukera ematen duten pertsona guztiei. Urtekari hori datu eguneratu eta zorrotz ugaritan oinarritu daiteke.

Dokumentu honek hiriaren ezaugarri nagusiak ezagutarazi nahi dizkie donostiarrei, enpresei eta gure hiriarekiko interesa duten guztiei.



donostiasustapena
fomento**sansebastián**

Esker onak

Ogasuna - Gipuzkoako Foru Aldundia / Donostiako Udala / Lanbide - Euskal Enplegu Zerbitzua / INE - Estatistikako Institutu Nazionala / Eusko Jaurlaritza / Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / GSDO - Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorra

¹ Hiri Barometroaren 2021eko edizioaren ildoari jarraiki.

² Science, Technology, Engineering and Mathematics akronimoa.

Aginte-taula 2022: Donostiako 2022ko adierazle sozioekonomiko nagusiak

Arloa	Adierazlea	2022	 	Bilakaera 2021 - 2022	Bilakaera 2019 - 2022
1.- Hiri kohesionatua	1. Biztanleria (kop.)	188.743	99.581 89.162	+%0,5	+%0,3
	2. Atzerritarrak biztanleria guztiarekiko (%)	%9,7		+%12,2	+%16,2
	3. Zahartze-tasa (%) ³	%25,3		+0,3 e.p. ⁴	+1,4 e.p.
	4. Langabetuak (urteko batezbestekoa) ⁵	82.571	40.444 42.127	+%3,4	+%4,4
	5. Langabezia-tasa (%) ⁶	%7,9	%8,5 %7,2	-0,4 e.p.	-0,3 e.p.
	6. Jarduera-tasa (%) ⁷	%56,6	%52,5 %61,2	+0,7 e.p.	+2,4 e.p.
	7. Okupazio-tasa (%) ⁸	%72,8	%69 %75	+1,6 e.p.	+3,4 e.p.
2.- Zerbitzuen hiria	1. BGP (milioi €)	8.322 M €		+%8,1	+%4,9
	2. BGP per capita	44.092 €/bizt.		+%7,6	+%1,1
	3. Enpresak (kop.)/Establezimenduak (kop.)	15.875/18.353		%0,0	-%3,4 / -%2,9
	4. Jarduera ekintzailearen tasa (TEA)	%6,6		+1,3 e.p.	-0,1 e.p.
	5. Enplegua Ezagutza Intentsiboetako Zerbitzuetan (% guztiarekiko)	%30,5		+0,7 e.p.	+ 1,3 e.p.
	6. Enplegua Merkataritza eta Ostalaritzan (% guztiarekiko)	%17,2		-0,3 e.p.	-1 e.p.
3.- Zientzia eta Berrikuntzaren hiria	1. I+G inbertsioa (milioi euro) ⁹	277.230 m. €			+%15,1
	2. I+Gn lan egiten duten pertsonak ¹⁰	5.954			+%12,1
	3. I+Gn lan egiten duten emakumeen % ¹¹	%46,5			+0,2 e.p.
	4. I+G+b enpresa berriak	118		+3 enpresa	+32 enpresa
	5. Unibertsitate-ikasketak dituen biztanle-riaren %	%26,7		+0,5 e.p.	+ 1,3 e.p.

³ 65 urtetik gorakoak guztiarekiko.

⁴ Ehuneko-puntua.

⁵ Langileak, 2022 urteko batez bestekoa: Iturria: Biztanleriari jarduerari buruz egindako inkesta. Eustat.

⁶ Lanbiden erregistratutako langabezia

⁷ Jarduera-tasa = $(\sum \text{aktiboak} / \sum 16 \text{ urtetik gor. biztanleak}) \times 100$.

⁸ Okupazio-tasa = $(\sum \text{langileak} / \sum 16 \text{ urtetik gor. biztanleak}) \times 100$

⁹ 2021eko datuak

¹⁰ 2021eko datuak

¹¹ 2021eko datuak

* Covid aurreko mailekiko alderaketa

1.- Enplegu eta kohesioa

Donostia tamaina ertaineko hiria da, 2022an bertan errolatutako 188.743 biztanle zituen eta tamaina askotako 18 auzotan banatzen da.

Gipuzkoako hiriburua bizi-kalitatearen eta ongizate sozioekonomikoaren estandarretan nabarmentzen da. Hala eta guztiz ere, hiriak aurre egin behar die hainbat demografia-erorkari, zahartze-tasa handiari, hirian aurki ditzakegun lan eta gizarte arrakalei, eta, besteak beste, kolektiboan eta auzoen arteko errenta-mailen arteko desberdintasunei.

1.1.- Biztanleria


- 2022an, Donostiako biztanleriak neurrizko hazkundea izan zuen (+% 0,5), biztanleria migratzailea asko hazi zelako (+% 12), aurreko urteko hazkundearekin alderatuta (% 1,7).
- Gazteen populazioa murriztu egin da azken urteetan, eta asko joaten dira Gipuzkoa-EAE ingurura, baita beste herrialde batzuetara ere (EB eta munduko gainerako herrialdeak).
- Migratzaileek, batzaz besteko adin gazteagoa izanda, Donostiako trantsizio demografikoari aurre egiteko aukera eskaintzen dute.

1.1.1.- Lehenengo analisi demografikoa

Donostiako biztanleria, bi urtez pixka bat atzera egin ondoren, urte batetik bestera puntu erdi inguru hazi da, eta 2022an 188.743 biztanle izatera iritsi da.

Biztanleria horren % 53 inguru emakumeak dira.

2022ko biztanleria



2022an, Gipuzkoako hiriburuan Lurralde Historikoko biztanleriaren laurdena baino gehixeago bizi da, eta % 46 inguru, Donostialdeko metropoli-barrutia osotasunean hartuta (328.418 biztanle).¹²

Nolanahi ere, hiriak, Euskadiren, Gipuzkoaren eta Donostialdearen bilakaeraren antzera, biztanleriak azken urteetan izan duen geldialdia erakusten du.

Hirian izandako biztanleria-hazkunde hori posible izan da biztanleria atzerritarren hazkunde handiari esker; izan ere, jatorri atzerritarreko biztanleak Donostian bizi ziren pertsonen %9,7 ziren 2022an.

Atzerritarren artean izandako hazkundea % 12 baino handiagoa izan da, eta 2019 baino lehenagoko atzerriko populazioaren hazkunde-eritmoa, %9 ingurukoa zena, gainditu du.

Donostiako biztanleriaren bilakaera 2015-2022



Donostiako urtetik urterako bilakaera (%)

Aldia	Biztanleria guztira	Biztanleria atzerritarra ¹³
2015-2016	%0,18	%1,7
2016-2017	%0,16	%5,4
2017-2018	%0,40	%9,0
2018-2019	%0,45	%9,4
2019-2020	-%0,05	%1,9
2020-2021	-%0,13	%1,7
2021-2022	%0,48	%12,2

Iturria: Donostiako Udala, Biztanleen Udal Errola, 2022ko abenduaren 31.


¹² Iturria: Biztanleen Udal Estatistika (EMH), 2022ko abenduaren 31.

¹³ Nazionalitate espainiarra duten atzerritarrek.

Auzoen bilakaerak ere berezitasunak ditu. Hala, auzo jendetsuenak (Amara Berri eta Erdialdea) pixka bat hazi dira 2021 – 2022 artean (% 5 inguru). Gros eta Egia auzoek, berriz, biztanleen % 4 baino zertxobait gehiago galdu dute azken urtean.

Altza eta Intxaurrondo dira biztanle gehien jaso dituzten auzoak, % 9 baino gehiago hazi baitira.

Biztanleen banaketa eta bilakaera 2021-2022
(Auzoen arabera rankinga, biztanle gehiagotik gutxiagora ordenatua)



Auzoa	Biztanle kop.	Bilakaera 2021-2022 %
1.- Amara Berri	30.477 bizt.	%4,9
2.- Erdialdea	22.149 bizt.	%4,8
3.- Altza	20.343 bizt.	%9,9
4.- Gros	18.072 bizt.	-%4,1
5.- Intxaurrondo	15.696 bizt.	%9,0
6.- Aiete	14.614 bizt.	%3,8
7.- Egia	14.611 bizt.	-%4,4
8.- Antiguo-Ondarreta	14.295 bizt.	%1,6
9.- Ibaeta	10.082 bizt.	%2,3
10.- Miracruz-Bidebieta	8.865 bizt.	%0,7
11.- Loiola-Txomin	6.274 bizt.	%0,0
12.- Ategorrieta-Ulia	4.096 bizt.	%4,3
13.- Martutene	2.700 bizt.	%1,3
14.- Añorga	2.635 bizt.	%5,6
15.- Miramon-Zorroaga	2.447 bizt.	%3,6
16.- Igeldo	1.068 bizt.	-%0,2
17.- Zubieta	298 bizt.	%0,4
18.- Landarbaso	18 bizt.	%0,1

Biztanleriaren hazkundera Biztanleriaren galera

Iturria: Donostiako Udala, Biztanleen Udal Errolda, 2022ko eta 2021eko abenduaren 31.



1.1.2.-Biztanleriaren zahartzea


Donostiako gizartearen mendebaldeko beste gizarte batzuk baino erritmo biziagoan zahartzen ari dira, eta hurrengo 30 urteetan ere hala jarraituko duela aurreikusten da¹⁴. Hain zuzen, Donostia gero eta zaharragoa izateak demografia-erronka handia dakar epe laburrean eta luzean. Funtsean bi arrazoiengatik azaltzen da fenomenoak:

a) Urte gehiago bizi gara, modu osasungarriagoan eta, beraz,

bizi-kalitate hoberekin, Donostiako biztanleen


batez besteko adina 47 urte izanik. Alde horretatik, 2022an bizi-itxaropena 84 urte ingurukoa izan zen eta 65 urtetik gorako pertsonen biztanleria osoarekiko proportzioa %25,3koa. Estatuko (% 20,2), EAZko (% 23,2)¹⁵ eta Gipuzkoako (% 23,1)¹⁶ batez bestekoak gainditzen dituen marka honek maximo historiko berri bat ezarri du hirian.

Donostiako zahartze-tasaren bilakaera¹⁷ 2000-2022.



Iturria: Donostiako Udala, Biztanleen Udal Errolda, 2022ko abenduaren 31.

Donostiako batez besteko adinaren bilakaera. 2010-2022




Iturria: Donostiako Udala, Biztanleen Udal Errolda, 2022ko abenduaren 31.

b) Hiriaren jaiotza-tasa nabarmen jaitsi da¹⁸; eta, 2000. urtean ezarritako 8,25etik, Donostiako jaiotza-tasa 5,58 izatera igaro zen 2022an.

Hain zuzen, Donostiako jaiotza-tasa:

- Baxuagoa da EB 27 osatzen duten herrialdeekin alderatuz gero; EB27ko batezbestekoa 9,1¹⁹ puntukoa izanik, Suedia edo Irlanda bezelako herrialdetan 11 puntutara igotzen da.
- Txikiena da hirian datuak erregistratzen direnetik²⁰.

Donostiako jaiotza-tasaren²¹ bilakaera. 2000-2022



Iturria: Donostiako Udala, Biztanleen Udal Errolda, 2022ko abenduaren 31.

¹⁴ Iturria: Eurostaten oinarritzko proiektzioak, Euskadiko enpleguaren liburu zuria. Trantsizio demografikoa. 2022.

¹⁵ Iturria: EIN Errolda jarraiaren estatistika 2022.

¹⁶ Iturria: Biztanleen Udal Estatistika (EMH), Eustat.

¹⁷ 65 urtetik gorako biztanleen proportzioa, biztanleria osoarekiko.

¹⁸ Jaiotza-kopurua mila biztanleko, urtebetea.

¹⁹ Iturria: Eustat. Euskadi Europar Batasunean eta Eurostat.

²⁰ Iturria: Eustat. Euskadi Europar Batasunean eta Eurostat.

²¹ Jaiotza-kopurua 1.000 biztanleko, urtebetea.


1.1.3.- Donostiako biztanleria gaztea

Donostiar gazteen kopuruak behera egin du azken urteotan

Zahartzen ari den gizartearen testuinguruan, Donostiako gazteak % 14²² baino gehixeago murriztu dira azken bi hamarkadetan. 2022. urtean, Donostiak 35 urtetik beherako 60.816 gazte ditu, hau da, Donostiako biztanleen % 32 (2001ean % 39 ziren).

Beherakada handi hori gazteen migrazio-saldo positiboaren testuinguruan gertatzen da (2010 eta 2020 bitartean 4.236 gazte baino gehiago); hala ere, ezin da konpentsatu zahartze-fenomenoak berak eragindako gazte-populazioaren galera (gehiago dira beste adin-tarte batera igarotzen direnak, gazte izateari uzten diotenak, eta jaiotza-tasa txikiak ez du populazioaren piramidearen oinarria osatzen).

Donostiar gazteen bilakaera (35 urtetik beherakoak) 2001-2022



Iturria: Donostiako Udala, Biztanleen Udal Errolda, 2022ko eta 2021eko abenduaren 31.



²² Iturria: Donostiako Udala, Biztanleen Udal Errolda, 2022-12-31.

DONOSTIAN 2010ETIK 2020RA BITARTEAN EGITEN DIREN GAZTEEN MIGRAZIO-MUGIMENDUAK

(Gipuzkoako Foru Aldundia. Gipuzkoako gazteen egoitza-mugikortasunari buruzko txostena)

	Donostiako gazteen migrazio-mugimenduak 2010-2020		
	Gazteen jatorria:	Gazteen helmuga:	Migrazio-saldoa
Gipuzkoa	4721	5285	-564
Bizkaia	973	972	1
Araba	387	350	37
Nafarroa	747	805	-58
Espainia	5910	5190	720
Frantzia	89	253	-164
Europar Batasuna	85	367	-282
Mundua	10858	6312	4546
GUZTIRA	23770	19534	4236


Gazteen migrazio-saldo positiboari dagokionez, azken hamarkadan 23.770 gazte iritsi dira hirira munduko beste leku batzuetatik. Gazte horien % 70 baino gehiago Espainiako beste leku batzuetatik edo Europar Batasunetik kanpoko herrialdeetatik datoz.

Bestalde, azken hamarkadan, 19.534 gazte Donostiatik kanpo bizitzera joan dira²³; gazte horien % 38 Gipuzkoan, EAEn eta Nafarroan bizi dira. Gipuzkoara doazen artean, gazte horietako asko etxebizitzari lotutako arrazoiengatik mugitzen dira. Beste bi lurreldeeta-

ra eta Nafarroara joateko arrazoiak lanarekin erlazionatuta daude batez ere.

Bestalde, % 26,6 Estatuko beste leku batzuetara joaten da, eta % 35,5 atzerrira, lanbide eta bizi-aukeren bila.

Donostiatik kanpo joaten diren gazte donostiarrak 2010-2020



Iturria: Gazteen migrazio-mugimenduak Donostian 2010 eta 2020 artean (Gipuzkoako Foru Aldundia. Gipuzkoako gazteen egoitza-mugikortasunari buruzko txostena). 2022ko abenduaren 31.

²³ Iturria: Donostian 2010etik 2020ra bitartean egiten diren gazteen migrazio-mugimenduak (Gipuzkoako Foru Aldundia. Gipuzkoako gazteen egoitza-mugikortasunari buruzko txostena), 2022-12-31.

1.1.4.- Biztanleria migratzailea

Hiria gaztetzeko faktorea


Donostiako biztanleen batez besteko adina 47 urtekoa da 2022an; biztanle migratzaileena, berriz, 34,4 urtekoa²⁴.

Nabarmenezkoa da atzeritarren % 14k 30 eta 35 urte bitartean dituela; proportzio horrek hirukoiztu egiten du kolektibo horrek Donostian jaiotako pertsonekin alderatuta duen pisua (hirian jaiotako biztanleen % 5 baino gutxiago).

Biztanleria-piramide gazteago horren arrazoia da azken hamarkada honetan 10.858 migratzaile gazte iritsi direla hirira Europar Batasunetik kanpoko beste herrialde batzuetatik²⁵.



Donostian jaiotako biztanleen piramidea vs. Atzeritarrak 2022 (%)




Iturria: Donostiako Udala, Biztanleen Udal Errolda. 2022ko abenduaren 31.

2022an, erroldatutako atzeritarren kopurua 18.247 pertsonakoa da, 140 herrialde desberdinetakoak; hau da, donostiar biztanleria osoaren % 9,7.

Jatorriari dagokionez, Latinoamerikako herrialdeetako biztanleria nabarmentzen da, zehazki: Honduras (% 11), eta ondoren Kolonbia eta Nikaragua (% 9 bakoitzak).

Donostiako atzeritarren jatorrizko herrialdeak 2022 (%)



²⁴ Iturria: Donostiako Udalaren analisi demografikoa 2022.

²⁵ Iturria: Donostian 2010etik 2020ra bitartean egiten diren gazteen migratzaile mugimenduak (Gipuzkoako Foru Aldundia. Gipuzkoako gazteen egoitza-mugimenduari buruzko txostena) 2022-12-31.

Iturria: Donostiako Udala, Biztanleen Udal Errolda, 2022ko abenduaren 31.

1.2.- Hezkuntza eta formakuntza

- Besteekin alderatuta, kualifikazio-maila altua duen hiri (biztanleriaren % 26,7k unibertsitate-ikasketak ditu vs % 22,7k EAEn): donostiarren enplegarritasuna bultzatzen duen “goranzko” joera eta balioa.
- Unibertsitate eta lanbide heziketako eskaintzak aurrera egiten du eta eraldaketa sakoneko lan merkatuaren beharretara egokitzen da.

1.2.1.- Donostiako ikasle-komunitatearen kuantifikazioa

Donostiako ikasleen komunitateak 53.432 lagun ditu, hau da, biztanleria osoaren % 28.

Komunitate horren inguruan, zifra hauek eman daitezke:

- **24.719 ikasle ari ziren Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza eta Bigarren Hezkuntzako ikasketak burutzen 2022-2023 ikasturtean**, (ikasleen % 46,2), hau da, 2020-2021 ikasturtean baino % 2,2 gutxiago: errealitate hau hiriko jaiotza-tasaren jaitsierarekin dago lotuta.
- **2022 – 2023 ikasturtean Batxilergoan 3.837 ikasle zeuden matrikulatuta** (-% 1,7 2020-2021 ikasturtearekin alderatuta), hau da, ikasleen % 7,2.
- **5.970 gazte ari ziren lanbide heziketako graduak ikasten 2021-2022 ikasturtean**, 2020-2021 ikasturtearen aldean % 3,6 gehiago, hau da, ikasle guztien % 11,2.
- **13.982 gazteek burutzen zituzten unibertsitate-ikasketak 2021-2022 ikasturtean**, hau da, ikasleen % 26,2k; eta % 37,4k Lanbide heziketa ikasten duten gazteak batuta.
- **Eta 4.924 ikasle araubide bereziko irakaskuntzan eta helduen prestakuntzan aritzen ziren 2021-2022 ikasturtean (% 9.2).**

Donostian 2022-2023 ikasturtean matrikulatutako ikasleak

Haur Hezkuntza-Lehen Hezkuntza- Bigarren Hezkuntza	24.719	%46,26
Batxilergoa	3.837	%7,18
Lanbide Heziketa	5.970	%11,17
Unibertsitate-formakuntza*	13.982	%26,17
Bestelako formakuntzak**	4924	%9,22
Guztira	53.432	

Iturria: Eskola-jardueraren estatistika. Eustat

*2021-2022 ikasturteko datuak. 2022/2023 aurrerapena.

**Araubide bereziko irakaskuntza, helduentzako irakaskuntza eta atazetakoa, 2021 – 2022 ikasturtea. 18 urtetik aurrera, aurrez aurreko modalitatea bada, edo 16 urtetik aurrera, urrutikoa bada eta Bigarren Hezkuntzako graduatutitulu ez badu.



1.2.2.- Unibertsitate titulua duten donostiarren kopurua


Unibertsitate titulua duten donostiarren kopuru altuak enplegarritasuna bultzatzen du

Hiriko hezkuntza-maila aurrera doa, eta, beste batzuekin alderatuta, altua da. Soziologikoki, hirian oso kualifikatuta dauden pertsonen kontzentrazioak, hiri-ingurunean sortzen diren gizarte-elkarrengaren bidez, berrikuntza-prozesuen agerpena eta ezagutzaren barreiatze-efektua eragiten du²⁶.

Hala, hirian unibertsitate-ikasketak dituzten pertsonen portzentaia 7,4 puntu igo da azken hamarkadan.

Errealitate horrek, zalantzarik gabe, herritarren enplegarritasuna errazten du hirian bertan eta hiritik kanpo. Gainera, Lanbidek Euskal Autonomia Erkidegoan egindako unibertsitate-txertatze-irizpide buruzko estatistikan ikus daitekeen bezala, enplegarritasunaren hobekuntza hori bereziki nabaria da ezagutza adar jakin batzuetan. Hala, 2021ean euskal unibertsitateetan²⁷ ikasketa tekniko eta osasun arloko ikasketetan graduatutako 10 gaztetik 9k enplegua zuten urte amaieran. Arlo ekonomiko - juridikoko ikasketen kasuan, graduatutako 10 gaztetik 8k lortu zuten lana urtea bukatu aurretik.

Unibertsitate titulua duten donostiarren proportzioaren bilakaera 2000-2022



Iturria: Donostiako Udala. Biztanleen Udal Errolda. 2022ko abenduaren 31.

1.2.3.- Erdi eta goi-mailako Lanbide Heziketako ikasleak

Erdi eta goi-mailako Lanbide Heziketako ikasleen kopuruaren aurreratzea

Erdi eta Goi-mailako Lanbide Heziketako ikasle kopuruak % 2 egin du gora 2021/2022 ikasturtetik 2022/2023 ikasturtera bitartean, eta 5.417 lagun dira guztira. Lanbide Heziketako Ikasle talde horren barruan, %37 erdi-mailako kurtsoetan dago matrikulatuta, % 63 berriz goi mailako zikloetan. Generoari dagokionez, gizonen presentzia handiagoa da hiriko hamazazpi Lanbide Heziketako Zentroetan (%56), ikasleen %44a berriz neskek osatzen dute.

Enplegarritasunari dagokionez, aipatzekoa da erdi eta goi mailako Lanbide Heziketako 2020ko promozioiko ikasleen %45 lanean ari zela 2021ean (% 47 arte LHko emakume ikasleen artean), % 42k ikasten jarraitzen zuela, eta % 12 langabezia zegoela²⁸.

1.2.4.- Erdi eta goi-mailako Lanbide Heziketako eskaintza

Hiriko erdi- eta goi-mailako prestakuntza eskaintzaren aniztasuna eta aurrerapena

Ikasle kopuruan aurrera egin den bezela, Gipuzkoako hiriburuko hamazazpi Lanbide Heziketako ikastetxe²⁹ eta 4 unibertsitateetan³⁰ eskaintzen diren gradu, master eta formakuntza zikloen eskaintza garai eta lan errealitate berrira egokitu da.

Hala, gaur egun, hirian, gradu eta gradu ondorengo ikasketa berriak integratzen dituen eskaintza dugu, gizartearen ematen ari diren eraldaketei erantzutea helburu duena: Eraldaketa digitala (adib. Big Data eta Data Analytics gradua), jasangarritasunare eraldaketa (adib. Sustainable Engineering ibilbidea) eta osasun eraldaketa (adib. Ingeniaritza biomedikoa).

²⁶ "Localización de los Servicios Empresariales Intensivos en Conocimiento en regiones manufactureras: el caso del País Vasco y sus entornos urbanos"; *Ekonomiaz*, 102. zk., 2. hiruhilekoa, 2022.

²⁷ 2018ko ekainean ikasketak amaitu zituzten unibertsitate-graduaren promozioa; Euskal Unibertsitate Sistemako ikasketak amaitu zituzten pertsonen laneratzeari buruzko azterketaren emaitza nagusiak. 2021.

²⁸ Iturria: Lanbide Heziketako laneratzeko-azterketa. 2020ko promozioa. Lan egoera 2021ean, IV. hiruhilekoa.

29- CIPF Politécnico Easo Politéknikoa LHII; 2- CPEIPS Salesianos San Sebastián HLBHII; 3- CPES C. Estud. de Pelu. y Est. Beta BHII; 4- CPES C.D.E.A. BHII; 5- CPES Elizaren Lanbide Heziketa BHII; 6- CPES J.M. Barandiaran Lizetza BHII; 7- CPES Ortzadar BHII; 8- CPES Seim BHII; 9- CPFPB Adsis San Sebastián OLHII; 10- CPFPB Gureak OLHII; 11- CPFPB Martutene Lanbide Eskola OLHII; 12- CPFPB Sustaker OLHII; 13- CPIFP Cebanc LHII; 14- CPIFP Ceinpro LHII; 15- CPIFP Centro de Estudios A.E.G. LHII; 16- CPIFP Nazaret Lanbide Heziketa LHII; 17- IES Xabier Zubiri-Manteo BHI.

Urtetik urterako bilakaera; Biztanleria aktiboa 2021: % 55,9; 2022: % 56,6.

³⁰ 1.- Deustuko Unibertsitatea; 2- EHU/UPV; 3- TecNum Nafarroako Unibertsitatea; 4- Basque Culinary Center.



a 2022. Donostiako garapen sozioekonomikoari buruzko txostena

1.3.- Enplegua

- Donostiak, 2022an 82.571 langile zituen, eta langabezia-tasa murriztea lortu zuen (% 7,9); era berean, biztanleria aktiboaren pisua areagotzea lortu zuen (+% 0,7 ehuneko-puntu³¹), migratzaileei esker.
- Langabeziak kolektibo jakin batzuetan (gazteak, 55 urtetik gorakoak, emakumeak eta ikasketa-maila baxuagoa duten biztanleak) eragin handiagoa izaten jarraitzen du.

1.3.1.- Biztanleria okupatua eta aktiboa


Gipuzkoako eta EAEko hazkunde baina handiagoa

Jarduera ekonomikoari buruzko Inkestaren arabera (Eustat), 2022an, hiriak 82.571 pertsona okupatu zituen guztira (42.127 gizon eta 40.444 emakume), eta pandemiaren aurretik bizitako susperraldi ekonomikoaren etapan (2015-2017) izandako okupazio-zifraren antzekoa lortu zuen, urtean % 3,4ko hazkundearekin.

Enpleguaren susperraldia horri esker, pandemia aurreko 2019. urtearen aldean, % 4,4 hazi da hiriko biztanleria aktiboa. Aldi Berean Donostiak gaintu egin du lurralde mailan eta Euskadin epe horretan bertan (2019 – 2022) ezarritako enpleguaren % 1eko neurrizko hazkunda.

Azken urteotan biztanleria aktibo atzeritarra hazi egin da, eta, horri esker, 88.350 pertsona aktibo daude hirian 2022an, eta jarduerata-tasa % 57tik gertukoa da, 2018ko eta 2019ko tasak (% 56,1 eta % 54,2, hurrenez hurren) gaintuz dituen.


Donostiako biztanleria okupatuaren bilakaera 2015-2022*



*Urteko batez bestekoa

Iturria: Biztanleria, jardueraren arabera. Eustat. 2022ko abenduaren 31.

Donostiako, EAEko eta Gipuzkoako biztanleria aktiboaren bilakaera 2019-2022



■ Donostia
■ Gipuzkoa
□ EAE

³¹ Urtetik urterako bilakaera; Biztanleria aktiboa 2021: % 55,9; 2022: % 56,6.

1.3.2.- Donostiako biztanleria langabetua

Langabetuen indizea nabarmen baxua lortu da

2022an, Lanbideren arabera, 6.984 pertsona daude langabezia; horietatik 3.883 emakumeak dira eta 3.101 gizonak. Bilakaerari dagokionez, Lanbiden erregistratutako langabeen kopurua % 5,2 jaitsi da, 2021ekoarekin alderatuta.

Karakterizazioari dagokionez, talde horren heren bat baino gehixeago 55 urtetik gorako pertsonak dira; % 56 inguru emakumeak dira; eta ia erdiak derrigorrezko oinarritzko ikasketak besterik ez ditu.

Illo horretatik, 2022an, hiriko langabetuen indizea³² % 7,9koa izan zen, hau da, 2021 baino 0.4 ehuneko-puntu txikiagoa eta pande-

mia aurreko garaia baino 0,3 ehuneko-puntu txikiagoa. Generoari dagokionez, gizonetako langabetuen indizea % 7,2koa da, eta emakumetako langabetuen indizea, berriz, % 8,5koa. Errealitate horren arabera, gizonen eta emakumeen artean 1,3 ehuneko-puntu aldea dago.

Bilakaerari dagokionez, Donostiako 2022ko langabetuen indizeak agerian uzten du lanbabezia-maila 2021ekoa (% 8,3) eta 2020koa (%9,8) baino txikiagoa dela. 2022 urteko langabetuen indizea 2019an erregistratutako balio minimoa (%8,2) baino txikiagoa da ere.


Donostiako biztanleria langabetua 2022an

Guztira: **6.984** pertsona **% 7,9** langabetuen indizea


Generoaren arabera (%)

Generoa	Indizea (%)
Emakumeak	% 55,6
Gizonak	% 44,4

Adin-tarteen arabera (%)




Hezkuntza-mailaren arabera (%)



Iturria: Lanbide. Erregistratutako langabezia. 2022ko abendua.

Langabetuen indizearen bilakaera Donostian 2017 - 2022



Generoa: Emakumeak %8,5 | Gizonak %7,2

Genero-arrakala : 1.3 e.p

Iturria: Lanbide.



³² Langabetuen indizea Lanbideren bulegoetan izena emanda dauden pertsonen lortzen da, lana aktiboki bilatzen duten edo ez kontuan izan gabe.

Langabezia-tasa murriztua, beste batzuekin alderatuta


Konparazio geografikoak egiteko eta zenbait kolektiboren egoera aztertzeko, azken atal honetan, Eustatek argitaratutako langabezia-tasa hartzen da erreferentziatzat (Jarduera Ekonomikoaren inguruko Biztanleria Aktiboaren estatistikan oinarrituta) –Lanbiden erregistratutako langabetuen indizearen orde³³.

2022 urteko Donostiako langabezia-tasa (% 6,7) beste bi euskal hiriburuetakoa baino 3 puntu apalagoa da, Gipuzkoako langabezia-tasa (% 6,9) eta Euskal Autonomia Erkidegokoa (% 8,5) baino hobe da ere.


Gainera, Donostia, 2022an, langabezia-tasa txikiena duen estatuko 5 udalerrietako bat da, eta hurbil dago 2022ko abenduan UE 27n zegoen % 6,1eko langabezia-tasatik.

Nolanahi ere, 2022ko langabezia-tasa bereizten bada, langabeziak zenbait kolektiborengan eragin eta kronifikazio handiagoa duela ikus daiteke; hala, Donostiako gazteen langabezia-tasa % 11,4koa da 2022an, eta lehen mailako ikasketak besterik ez dituen biztanleriaren langabezia-tasa % 12,4koa da.

Langabezia-tasen alderaketa 2022



Iturria: Biztanleria, jardueraren arabera. Eustat eta Eurostat. 2022ko abenduaren 31.



*2022ko IV. hiruhilekoa. INEren Biztanleria Aktiboaren Inkesta (EPA). 2022ko abenduaren 31.

³³ Biztanleriari buruzko estatistika-eragiketaren bidez argitaratutako langabezia-tasa. Eustatek, estatistika ofizialetan egiten den bezela (INE, Eurostat), langabetzat hartzen ditu 16 eta 74 urte bitarteko lanik ez duten eta lana aktiboki bilatzen duten pertsonak, hau da, azken 4 asteetan bilaketa kudeaketa egin dutenak.





2.- Zerbitzuen hiria

2022an, Donostiak biztanleko 44.092 €-ko BPGa zuen, Gipuzkoako eta Euskadiko batez bestekoa baino handiagoa, eta enpleguan aurrerapausoak egiten jarraitzen du, enpresa-sarearen dinamismoari eta ekimen-ratio handiari esker. Donostia zerbitzuen hiri gisa nabarmentzen da, Ezagutzan Intentsiboak diren Zerbitzuei ugari (aurrerantzean SEIC³⁵) eta hiri-ekonomia sendoa (merkataritza eta ostalaritza) baititu.

2.1.- Udalerriko BPGa

- Hiriak 8.322 milioi euroko BPGa lortu zuen 2022an (2021ean baino % 8,1 gehiago).
- Biztanleko 44.100 €-ko BPGa Gipuzkoako eta Euskadiko batez bestekoa baino handiagoa da, eta % 7,6 igo da aurreko urtearekin alderatuta.

Udaleko BPGaren hazkunde nominala

Zenbateko absolutuetan, hiriak 8.322 milioi euroko BPGa (sortutako ondasun eta zerbitzuen balio nominala) lortu zuen 2022an.

Hirian, 2021etik 2022ra bitartean, enpleguaren arloan izandako hazkunde onak (+% 3,4) azaltzen du BPGaren hazkunde hau, halaber, Udalaren BPGaren hazkundea %8,1ekoa da, Gipuzkoan eta Euskadin izandako joeraren antzekoa (% 9 inguru).

Hala ere, inflazio handiko testuinguru batean, KPlaren urtetik urterako aldakuntza-tasak % 5etik³⁶ gorakoak izanik, Donostiako, Gipuzkoako eta EAEko BPG nominalaren aurrerapena apaldu egin daiteke, maila erreal edo deflaktatueta, hazkunde hori % 3 inguruan kokatzen baitute gure hiriaren kasuan.

BPG per capitaren maila Gipuzkoako eta Euskadiko batezbestekoa baino handiagoa

Donostiako BPG per capita, hau da, ondasun eta zerbitzuen ekoizpenaren aberastasunaren biztanleko banaketa, 2022an 44.092 euro ingurukoa zen donostiar bakoitzeko. Maila hori:

- Gipuzkoako batezbestekoa baina % 11 handiagoa da, eta EAEko batezbestekoa baino % 13,5 handiagoa.³⁷
- 2021 baino % 7,6 handiagoa da.
- 2019an lortutako maximoa (43.603 €/bizt.) baino pixka bat altuagoa da.


Donostiako, Gipuzkoako eta EAEko udal BPGaren bilakaera nominala 2021-2022 (milioi €)

	2021	2022	Eboluzioa 2021 - 2022
Donostia	7.701	8.322 ³⁸	+%8,1
Gipuzkoa	26.083	28.371 (a)	+%8,8
EAE	78.004	84.973 (a)	+%8,9

(a) Aurrerapena

Iturria: Eustat. Kontu ekonomikoak eta hiruhilekoko kontu ekonomikoak. 2022ko abenduaren 31.

Donostiako BPG per capitaren bilakaera 2017-2022



Iturria: Eustat. Kontu ekonomikoak. 2022ko abenduaren 31.

³⁵ EJSN 62. Programazioa, aholkularitza eta informatikarekin zerikusia duten beste jardura batzuk; EJSN 69. Jardura juridikoak eta kontabilitatekoak; EJSN 70. Egoitza nagusien jarduerak; enpresa-kudeaketako aholkularitza-jarduerak; EJSN 71. Arkitekturako eta ingeniariatzako zerbitzu teknikoak; saiakuntza eta analisi teknikoak; EJSN 72. Ikerketa eta garapena; EJSN 73. Publizitatea eta merkatu-azterketak; EJSN, 74. Beste jardura profesional, zientifiko eta tekniko batzuk.

³⁶ KPIa 2022ko abenduan, % 5,4koa, eta % 9-% 10etik gorakoa, udako hilabeteetan, ekainean, uztailan eta abuztuan, Euskadi osoan. Iturria: Eustaten kontsumorako prezioen indize orokorra.

³⁷ Iturria: Eustat. Kontu Ekonomikoak 2022 (a) Euskadiko Aurrerapena: 38.862 €/bizt.; Gipuzkoa: 39.590 bizt.

³⁸ Donostiarako zenbatetsitako datua, elementu hauen bilakaera kontuan hartuta, 2021eko ekitaldiari dagokionez: EAEko hiruhileko BPGaren bilakaera sektoreka (Hiruhilekoko Kontu Ekonomikoak Eustat), EAEko eta Donostiako enpleguaren bilakaera sektoreka, Eustaten Jardura Ekonomikoen Direktorioaren bidez. 2022.

2.2.- Donostiako enpresa-sarea

- Enpresa-parkea ia ez da aldatu 2021arekin alderatuta.
- Hiriko enpresa-dentsitatea (85 enpresa 1.000 biztanleko), Bilbo (78), Sevilla (76) edo Malagako (75) baino handiagoa da.
- Hiriko establezimenduen % 73k baino gehiagok 2 lanpostu baino gutxiago ditu.
- 50 langiletik gorako enpresak enpresa-parke osoaren % 1,4 dira, eta hiriko enpleguaren % 43 baino gehiago biltzen dute.

Enpresa-parkearen egonkortzea

2022. urtean, Donostiak 15.875 enpresa zituen, 18.353 establezimendutan banatuta, eta guztira 96.593 enplegu sortzen zituzten hirian.


2021etik 2022ra bitartean enpresa-parkea ez da ia aldatu, eta 15 enpresako saldo positiboa izan du³⁹, hainbat urtez establezimenduak galdu ondoren, batez ere pandemia garaian. Gainera, 4 urte-tik beherako enpresen itxiera-proportzioa % 9,4 murriztea lortu da urtebetean⁴⁰.

Hiriak enpresa-dentsitate esanguratsua du

Donostiak, lurralde eta mugaz gaindiko hiriburua den aldetik, enpresa-dentsitate nabarmena du.

Beraz, Donostiako enpresa-dentsitateak (85 enpresa 1.000 biztanleko) Bilbo (78), Sevilla (76) edo Malaga (75) hiriburuaren dentsitatea gainditzen du.

Donostiako enpresa-dentsitatea, estatuko beste hiriburu batzuekin alderatuta (2022)




Iturria: EIN. Enpresen Direktorio Nagusia (DIRCE) eta Udal Errolda. 2022ko abenduaren 31.

Donostiako enpresa eta establezimenduen kopurua 2022



Iturria: Jarduera ekonomikoaren direktorioa (DIRAE). 2022ko abenduaren 31. Eustat


Enpresaren saldo garbiaren bilakaera 2018-2022



Iturria: Jarduera ekonomikoaren direktorioa (DIRAE). 2018-2019-2020-2021- 2022.Eustat

Enpresaren dimentsioa enpleguaren arabera

Tamainari dagokionez, mikro unitateak nabarmentzen dira: hiriko establezimenduen % 73k baino gehiagok 2 lanpostu baino gutxiago ditu; nolabai ere, proportzio hori txikiagoa da gaur egun enpresa horiek Madrilan (% 83), Katalunian, Nafarroan (% 82) eta EAE osoan (% 80) duten pisuarekin alderatuta⁴¹. Hirian mikroETeak daude gehien bat (% 73,3), eta beren kontura lana sortzen duten enpresa buru autonomoen kopurua nabarmena da (% 53,4).



Iturria: Jarduera ekonomikoaren direktorioa (DIRAE). Eustat 2022ko abendua.

³⁹ Iturria: Estatistika Enpresen sorrera eta heriotza. Eustat.

⁴⁰ Iturria: Geuk egina, Jarduera Ekonomikoaren gaineko Zergan (2022) oinarri hartuta.

⁴¹ Iturria: Enpresen Direktorio Nagusia (DIRCE). INE 2022.


Enpleguaren kontzentrazioa eta dinamismo handiagoa establezimendu handiagoetan vs. enpleguaren atzerakada establezimendu txikiagoetan

Bestalde, establezimendu handienek, hau da, 50 lanpostu baino gehiago dituztenek (263 establezimendu hirian 2022an⁴²), hazkunde moderatua izan dute urtetik urterako enpleguan, % 1 ingurukoa.

Gainera, enpresa-segmentu horrek, enpresa-parke osoaren % 1,4 besterik ez den arren, enpleguaren % 43 baino gehiago biltzen du hirian.

Soldatapeko 9 lanpostu baino gutxiago dituzten establezimenduek, berriz, puntu erdi gutxiago egin dute behera enpleguari dagokionez, 2021etik 2022ra.

Enpleguaren bilakaera, enpresa-establezimenduaren tamainaren arabera 2021-2022



Iturria: Jarduera ekonomikoaren direktorioa (DIRAE). Eustat 2021 eta 2022 2022ko abenduaren 31.

“Gazela enpresen” kasu berezia

Aipamen berezia merezi dute “gazela enpresak” izenekoek. Kontzeptu horrek 10 lanpostu baino gutxiago dituzten eta hiru urteko epean tamainan bikoitza edo gehiago haztea lortzen duten enpresei egiten die erreferentzia. Donostiako batez besteko gazela enpresek, 2018an, 28 lanpostu sortzen zituzten, eta 2021ean, 61⁴³.

Donostiak, 2018-2021 aldian, 23 gazela enpresa zituen, 2021ean 1.411 enplegu sortu zituztenak. Jarduera-motaren arabera, jarduera profesional, zientifiko eta teknikoak nabarmentzen dira (guztizkoaren % 26).

Konparazioz, Donostiako gazela enpresek 10 lanpostu baino gutxiagoko enpresa-sarean duten pisua (% 4,6) estatu osokoaren parekoa da, eta, gainera, Gipuzkoako (% 3,1) eta EAEko (% 3,4) ehunekoak gainditzen ditu.

Hala, Estatu-mailako udalerrien artean, Donostia hogeigarren da, eta hiriburuak, biztanleria-dimentsioari dagokionez, duen posizioa nabarmenki gainditzen du (33. postua, rankingean).



⁴² Iturria: Jarduera ekonomikoaren direktorioa (DIRAE). Eustat 2022.

⁴³ Cotec-en gazela enpresen behatokia. Donostiako gazela enpresak 2018-2021 bitartean.

2.3.- Udalerriko ekonomia-sarearen sektorekako analisia

- Zerbitzuen sektoreak % 87,8ko ekarpena egiten dio Udalarren BPGari (Gipuzkoan zerbitzuen sektorearen ekarpena % 65koa da).
- Langileen % 85 hirian lan egin eta bizi da, eta % 15 Donostiara lanera joaten da.
- Donostiako hirugarren sektorearen dentsitatea (25,4 establezimendu 1.000 biztanleko), Sevilla (24,5) eta Madrilekoaren parekoa da.

Hirugarren sektorearen ekarpen garrantzitsua: BPG, enplegua eta establezimenduak

Sektoreei dagokienez, hiriko udal BPGa zerbitzuen sektorearekin lotuta dago neurri handi batean (% 87,8, 2022an), eta datu hori ez dator bat sektore horrek Euskadin (% 69) eta Gipuzkoan (%65) duen pisuarekin⁴⁴.

Hiriko establezimenduen eta enpleguaren sektorekako banaketari dagokionez, sektorekako erradiografia ia erreplikatu egiten da.

Bestalde, industriak eta eraikuntzak antzeko partaidetza dute udalerrian, % 6koa, hurrenez hurren. Lehen sektorea, berriz, Donostiako BPGaren % 0,1 besterik ez da.

Enpleguari dagokionez, azpimarratzekoa da biztanleen % 85 inguru bertan bizi dela, eta % 15 Gipuzkoako hiriburura lanera joaten diren pertsonak direla.



BPGaren banaketa sektoriala, establezimenduak eta lanpostuak. 2022


	BPG		Establezimenduak		Enpleguak	
	zenb.	%b.	zenb	%b.	zenb	%b.
Nekazaritza, abelzaintza eta arrantza	4.733.325	%0,1	64	%0,3	109	%0,1
Industria eta energia	505.227.660	%6,1	518	%2,8	2.658	%2,8
Eraikuntza	501.449.403	%6,0	1.505	%8,2	4.359	%4,6
Zerbitzuak	7.310.730.154	%87,8	16.266	%88,6	89.467	%92,5
GUZTIRA	8.322.140.543	%100,0	18.353	%100,0	96.593	%100,0

Iturria: Eustat. Udaleko BGPa eta Jarduera ekonomikoen zerrenda. 2022ko abendua.


⁴⁴ Iturria: Eustat. Kontu ekonomikoak. 2021eko aurrerapena.

Hiriak dentsitate tertziario eta komertzial nabarmena du

Donostia (% 88,6) hirugarren sektoreko ordezkartzaren buru da beste bi euskal hiriburuen aldean (% 87 Bilbo eta % 82 Gasteizen).

Zerbitzu-sektorearen pisuaren konparazioa (establezimendu-kopurua) EAEko hiriburuak 2022

Iturria: Jarduera ekonomikoen direktorioa (DIRAE). Eustat eta Biztanleen udal estatistika. Eustat. 2022ko abenduaren 31.

Hirugarren sektorearen pisua**2.4.- Ezagutza Intentsiboak diren Zerbitzuen hiria (SEIC)**

- Ezagutza Intentsiboak diren Zerbitzuek % 43,4ko ekarpena egiten diote Udalaren BPGari.
- Donostiak 4.534 establezimendu ditu Ezagutza Intentsiboak diren Zerbitzuen sektorean.
- Ezagutza Intentsiboak diren Zerbitzuek 29.450 lanpostu sortzen dituzte, hau da, hirian lan egiten duten biztanleen %30,5.

- Zerbitzu-mota hau produktibitate handiagatik nabarmentzen da, langileko BPGaren ratioak gainerako jardura-sektoreen gainetik baitaude.

Ekarpen nabarmena hiriaren BPGari

Espreski hirugarren sektoreari erreparatzen badiogu, Ezagutza Intentsiboak diren Zerbitzuek BPG-ari egiten dioten ekarpen espezifiko nabarmentzen da (% 49).

BPGaren banaketa, zerbitzuen sektoreko jardura-adarren arabera. 2022

	Euroak	%b.	Establezimenduak	%b.	Lanpostuak	%b.
a) Ezagutza intentsiboak diren Zerbitzuak (SEIC)	3.613.732.217	%43,4	4.534	%24,7	29.450	%30,5
a.1.- SEIC - Enpresak (SEIC-E)	1.523.762.663	%18,3	2.745	%15,0	10.605	%11,0
a.2.-SEIC - Pertsonak (SPES)	2.089.969.554	25,1%	1789	%9,7	18.845	%19,5
a.2.1.-SPES Hezkuntza	824.330.621	%9,9	332	%1,8	7.417	%7,7
a.2.2.-SPES Osasungintza	65.638.933	%15,2	1.457	%7,9	11.428	%11,8
b) Operazio zerbitzuak	96.997.937	%44,4	11.727	%63,9	58.198	%60,3
b.1.- Merkataritza	66.288.028	%5,6	2.483	%13,5	8.573	%8,9
b.2.- Ostalaritza	32.981.740	%5,2	1.444	%7,9	7.991	%8,3
b.2.- Bestelako operazio zerbitzuak*	797.728.169	%33,6	7.800	%42,5	41.634	%43,1
Zerbitzu sektorea, guztira	7.310.730.154	%87,8	16.261	%88,6	87.648	%90,7

*Bestelako operazio zerbitzuak: garraioa, edizioa, zinema-zerbitzuak, banka eta aseguruak, alokairuak, aholkularitza juridiko eta kontabilitatekoak, bidaiak eta aldi baterako lan-agentziak, kultura- eta kirol-jarduerak, garbiketa- eta konponketa-zerbitzuak eta gizarte-zerbitzuak.

Iturria: Jarduera ekonomikoen direktorioa (DIRAE). Eustat. 2022ko abenduaren 31.

Ezagutza intentsiboak diren zerbitzuek balio erantsi handia sortzeko gaitasuna erakusten dut, hiriko hirugarren sektoreko BPGaren erdia inguru sortzeko gai diren heinean.


Zenbateko absolutuetan, Donostiak ezagutza intentsiboak diren zerbitzuetako 4.534 establezimendu ditu guztira, eta 2022an 29.450 lanpostu sortu dituzte. Hirian lan egiten duten biztanleen %30,5 SPES enpresatan egiten dute lan eta %11,0 SEIC-E enpresetan.

Ezagutza intentsiboak diren zerbitzuek barne hartzen dituzte “ezagutza intentsiboak diren pertsonen zuzendutako zerbitzuak” (hezkuntza eta osasuna), guretzako arretarantz SPES izango direnak. SPES udal BPGaren %25,1 sortzen du (osasunak %15,2 eta Hezkuntzak %9,9); SEIC-E deritzenak, berriz, 2022an Donostiako BPGaren %18,3 sortzeko gai ziren.

Dinamismo eta produktibitate handia Ezagutza intentsiboak diren Zerbitzuetan


Bilakaerari dagokionez, zerbitzu-mota horrek aurrerapen handia izan du enpleguari dagokionez azken bost urteetan. Hazkunde hori % 6,1ekoa izan da SPESen kasuan, eta % 13,1ekoa Ezagutza Intentsiboak diren enpresei zuzendutako Zerbitzuetan (SEIC-E).

Ezagutza intentsiboak diren zerbitzuen banaketaren eskema
[EZAGUTZA INTENTSIBOAK DIREN ZERBITZUAK]



Ekarpena, honako hauei dagokienez		
BGP	Enplegua	Establezimenduak
Ezagutza Intentsiboak diren Zerbitzuak guztira: 3.613 M (%43,4)	Ezagutza Intentsiboak diren Zerbitzuak guztira: 29.450 (%30)	Ezagutza Intentsiboak diren Zerbitzuak guztira: 3.613 M (%43,4)
		
SEIC-E 1.523 M (%18,3) SPES 2.089 M (%25,1)	SEIC-E 10.605 (%11) SPES 18.845 (%19,5)	SEIC-E 2.745 (%15) SPES 1.789 (%9,7)

Ezagutza Intentsiboak diren Zerbitzuetako enpleguaren bilakaera Donostian 2017 - 2022



Iturria: Jarduera ekonomikoen direktorioa (DIRAE). Eustat. 2022ko abenduaren 31

Ezagutza Intentsiboak diren Zerbitzuak produktibitate handia izateagatik nabarmentzen dira, Langileko BPGa 111.951 euro ingurukoa da SPESen kasuan eta 143.388 euro ingurukoa SEIC-En kasuan.

Ratio horiek, gainera, 2022. urtean Euskadin islatutako batez besteko industria-produktibitatea gainditzen dute (103.828 €/enplegua⁴⁵).

Produktibitatea zerbitzuen sektoreko jardueretan Donostia 2022⁴⁶

SEIC-E	143.388 €/enplegua
SPES	110.951 €/enplegua
Operazio zerbitzuak	63.437 €/enplegua

Iturria: Jarduera ekonomikoen direktorioa (DIRAE). Eustat 2022 eta hiruhileko kontu ekonomikoak (CET) Eustat 2022.

⁴⁵ Iturria: Jarduera ekonomikoen direktorioa (DIRAE). Eustat 2022 eta hiruhileko kontu ekonomikoak (CET) Eustat 2022.


⁴⁶ Barne Produktu Gordinaren eta Sektoreko Enpleguaren arteko zatidura (Jarduera Ekonomikoen Direktorioa 2022).

Ezagutzen Intentsiboak diren Enpresei zuzendutako Zebitzuak hiru motatakoak dira⁴⁷: profesionalak (SEIC-P), teknologikoak (SEIC-T) eta sorkuntzakoak (SEIC-S).

Testuinguru honetan, nabarmentzekoa da SEIC-T enpresen presentzia Gipuzkoako hiriburuan, bertako Ezagutzen Intentsiboak diren Enpresei zuzendutako Zerbitzu enpresen %47 dira. Garrantzitsua da ere Donostiak Gipuzkoan eta bere eskualdean, berrikuntza zubi gisa, duen eragina nabarmentzea; hiriburuko Ezagutzen Intentsiboak diren Zerbitzu Enpresen bidez eskaintzen baida berrikuntza beste lurralde horietan

Era berean, Ezagutzen Intentsiboak diren Enpresei zuzendutako Zerbitzu operatiboagoek (SEIC-P: zerbitzu fiskal, juridiko etb.) hirian izan duten hazkundera Gipuzkoako industria gunetatik jasotako eskari bati erantzuten dio; izan ere, ohikoa da industrian zerbitzu horiek esternalizatzea baliabideak ekoizpen bide aurreratuagoetara bideratu eta horietan espezializatu ahal izateko. Hiriko SEIC-P Ezagutzen Intentsiboak diren Enpresei zuzendutako Zerbitzu enpresen %30 dira, eta SEIC-C enpresak (sorkuntzako enpresa-zerbitzu intentsiboak) gainerako % 23a.

SEIC-E enpresa berrien banaketa hirian 2022



Iturria: Ekonomia-jardueren gaineko zerga. Donostiako Udala. 2022ko abenduaren 31.



⁴⁷ Garraioa, edizioa, zinema-zerbitzuak, bankuak eta aseguruak, alokairuak, aholkularitza juridiko eta kontabilitatekoak, bidaia- eta aldi baterako lan-agentziak, kultura- eta kirol-jarduerak, garbiketa- eta konponketa-zerbitzuak eta gizarte-zerbitzuak.

2.5.- Ekintzailletza

- Hiriko Jarduera Ekintzailearen Tasa (% 6,6) berreskuratu da eta 2019koen antzeko mailara iritsi da.
- Sortutako enpresen artean, Ezagutzen Intentsiboak diren Zerbitzu sektorekoak nabarmentzen dira, hirian sortutako enpresen % 40 inguru.

Ekintzailletza berreskuratzea

Ekintzailletza-jarduera hirian (% 6,6), Ekintzailletza-jardueraren tasaren (TEA⁴⁸) bidez neurtua, “berreskuratu” egin da 2022an, eta 2019koen antzeko maila lortu du.

Maila horrek Madrilgo tasa gainditzen du, baita⁴⁹ estatu mailako (% 6) eta EAEko batzbestekoak (% 6tik behera). Hala ere, 2021. urtean markatutako Europako batez besteko mailaren azpitik dago oraindik. (% 9,1).


Beste hiri batzuekin alderatuta Venture Capital kopuru txikiak erregistratu badira ere, hiriko startupek 2015etik 2021era altxatutako inbertsioa (62M €) zazpigarren postuan dago Espainiako VC inbertsio handienak dituzten hirien rankingean (Sevillaren, Malagaren eta Galiziaren aurretik).

Pertsona ekintzailearen profilari dagokionez, profil parekidea da nagusi (% 50 gizonak eta % 50 emakumeak), 40 urteko batez besteko adinarekin, soldatapekoak izaten dira gehienak eta ia guztiak goi mailako ikasketak izan ohi dituzte.

SEIC ekintzailletzaren protagonismoa hirian

2022. urtean, hiriko ekimen ekintzaile guztiekiko, %40 ingurukoa izan zen Ezagutzen Intentsiboak diren Zerbitzuetako enpresen sorrera. Aldi berean, SEIC-T enpresak nabarmentzen dira, sortutako SEIC enpresa berrien %60 a. SEIC-S enpresak sortutako SEIC enpresa berrien %31 dira eta SEIC-P enpresak %11.


SEIC-E enpresa berrien banaketa hirian 2022



- Zerbitzu profesional tradizionalak
- Zerbitzu profesionalak teknologia berrietan
- Sorkuntzako enpresa-zerbitzu intentsiboak

Iturria: Ekonomia-jardueren gaineko zerga. Donostiako Udala. 2022ko abenduaren 31.

Donostiako ekintzailletza-jardueraren tasaren bilakaera 2017- 2022



Iturria: Sustapena - Donostiako Udala. 2022ko abenduaren 31.



⁴⁸ Total early - stage Entrepreneurial Activity del Global Entrepreneurship Monitor (GEM) - Euskal Autonomia Erkidegoa 2021-2022.

⁴⁹ (GEM) - Euskal Autonomia Erkidegoa 2021-2022. Global Entrepreneurship Monitor (GEM) 2022-2023.

2.6.- Hiri-ekonomia: Merkataritza eta Ostalaritza

- Hiri-ekonomiak % 10,8ko ekarpena egiten dio Udalaren BPGari eta % 17,2ko ekarpena enpleguari.
- Hiriak 2.483 txikizkako denda ditu, Gipuzkoako merkataritza bateratuaren % 30.
- Ostalaritzak 1.444 establezimendu ditu, 2014az geroztik % 10 gehiago, Gipuzkoako ostalaritza eskaintzaren % 32,6 izanik.
- Urtetik urterako bilakaera oso positiboa izan da kontratazioari dagokionez, bai merkataritzan (+% 15), bai ostalaritzan (+% 31).
- Bi sektoreek emakume-kontratazioak pisu nabarmena duela ikus dezakegu: % 65,1 arte merkataritzan eta % 55,2 ostalaritzan. Kontratazio mugagabeak ere gora egin du.

Bestalde, Donostiako hiri-ekonomiak (merkataritza eta ostalaritza: udalerriko BPGaren % 10,8) eta hiriko gainerako zerbitzu operati-boek⁵⁰ (udalerriko BPGaren % 33,6) 2022an Donostiako BPGaren % 44,4 sostengatzen dute.

Txikizkako merkataritza

Gipuzkoako hiriburuak, 2022an, 2.483 txikizkako denda ditu, hau da, Donostialdeko merkataritzaren % 65 inguru eta Gipuzkoa osoko merkataritzaren % 30, Donostia hiriburuak kanpoko bezeroak erakartzeko beti izan duen ahalmena horrenbestez finkaturik.

Establezimendu-parke horrek 8.573 lanpostu sortzen ditu, hau da, hiriko enpleguaren % 8,9.

Sektoreei dagokionez, establezimenduen % 30 baino gehixeago eguneroko ondasunen eta elikagaien merkataritzari lotuta daude (% 37 enpleguari dagokionez); bestalde, % 24 inguru moda, oinetakoak eta osagarriak saltzen dituzte.

Establezimenduen eta enpleguen banaketa jarduera-adarren arabera txikizkako merkataritzan (%) 2022


	Establezimenduen %	Lanpostuen%
Eguneroko elikadura	%30,4	%36,7
Moda, oinetakoak eta osagarriak	%23,8	%22,2
Drogeria, lurrindegia eta farmazia	%7,3	%8,7
Etixerako tresnak	%11,1	%8,3
Elektronika eta komunikazioak	%4,2	%3,6
Aisia eta kultura	%6,0	%6,0
Ibilgailuen salmenta	%3,0	%4,3
Bestelako txikizkako merkataritza establezimenduetan	%10,7	%8,9
Txikizkako jard. Establezimendutik kanpo	%3,7	%1,5
Guztira	2.483 establezimendu (%100)	8.573 enplegu (%100)

Iturria: Jarduera ekonomikoen direktorioa (DIRAE). Eustat. 2022ko abenduaren 31.

Merkataritza-dentsitateari dagokionez, Donostiak Donostialdeak (11,3) eta Gipuzkoak (11) baino indize handiagoa du (13,2 saltoki 1.000 biztanleko); indize hori bera EAEko beste bi hiriburuaren dentsitatearen eta Europako batez bestekoaren gainetik dago (8.3 saltoki 1.000 biztanleko).

Iturria: Jarduera ekonomikoen direktorioa (DIRAE). Eustat. 2022ko abenduaren 31.

Donostiako merkataritza-dentsitatea, Donostialdearekin, Gipuzkoarekin, Bilborekin eta Gasteizekin alderatuta (2022)



⁵⁰ Garraioa, edizioa, zinema-zerbitzuak, banka eta aseguruak, alokairuak, aholkularitza juridiko eta kontabilitatekoak, bidaia- eta aldi baterako lan-agentziak, kultura- eta kirol-jarduerak, garbiketa- eta konponketa-zerbitzuak eta gizarte-zerbitzuak.

Ostalaritza (sukaldaritza eta ostatua)

Ostalaritzak 1.444 establezimendu ditu 2022an, eta 7.991 enplegu inguru sortzen ditu (6.329 jatetxeetan eta 1.662 ostatueta), hau da, hiriko enpleguaren % 8,3.

Ostalaritzako establezimenduen banaketa eta enplegua azpisektoreka (%) 2022

	Establezimenduen %	Lanpostuen%
Ostatu-zerbitzuetako establezimenduak	%18,5	%20,8
Hotelak eta antzeko ostatuak	%12,0	%16,7
Ostatu turistikoak eta egonaldi laburreko beste ostatu batzuk	%5,2	%1,9
Bestelako ostatuak	%1,3	%2,2
Sukaldaritza-zerbitzuetako establezimenduak	%81,5	%79,2
Jatetxeak eta janari-postuak	%40,4	%53,7
Edari-establezimenduak	%39,1	%22,3
Bestelako zerbitzuak (catering)	%2,1	%3,2
Guztira	1.444 establezimendu (%100)	7.991 enplegu (%100)

Iturria: Jarduera ekonomikoen direktorioa (DIRAE). Eustat. 2022ko abenduaren 31.




Ostalaritza-parkeak bide positiboan jarraitzen du: 2014az geroztik, establezimenduak % 10 hazi dira, eta saldo garbi positiboa izan dute 2021 eta 2022 artean (26 establezimendu berri).

Ostalaritza-parkearen bilakaera positiboa izan da, neurri handi batean, turismo-sektoreak 2022an lortu duen protagonismoari esker; izan ere, urte horretan nabarmen gainditu dira 2019an erregistratutako sarrerak (+% 16,3) eta ostatu-gauak (+% 20,3).

Hala, 2022an, Gipuzkoako hiriburuak 886.442 bisitari inguru hartu zituen, eta bi milioi gau inguru kontatu zituen hoteletan, apartamentu turistikoetan eta landa-ostatuetan.

Ibiltur 2022ren azken datuen arabera, turistak 204 euroko gastua egiten du pertsona eta egun bakoitzeko, eta gastu horren % 51 tokiko merkataritzara bideratzen du.

Ostatu-gauen kopuruaren eta bidaiari-sarreraren kopuruaren bilakaera 2019-2022 (hotelak, apartamentu turistikoak eta landa-ostatuak)



Iturria: Establezimendu turistiko hartzaileen inkesta. Eustat. 2022/12/31.


Kontratazioaren bilakaera hiri-ekonomian

Ostalaritzak, 2022an 20.726 kontratu sinatu zituen guztira (% 36,4 mugagabeak eta % 48 lanaldi osokoak), ez du berreskuratu 2019an lortutako kontratazio-maila, baina 26 ehuneko-puntu inguru igo du kontratu mugagabeen pisua eta 5 ehuneko-puntu lanaldi osoko kontratazioa.

Merkataritzari dagokionez, 12.875 kontratu sinatu ziren 2022an (% 26,3 mugagabeak eta % 33 lanaldi osokoak), 2022ko kontratazio-maila 2019koa baino %13,2 handiagoa da, eta kontratazio mugagabearen pisua 14 puntu baino zertxobait handiago ere.⁵¹

Txikizkako merkataritzak, ordea, % 4 baino gehixeago murriztu du lanaldi osoko kontratazioa 2019 eta 2022 artean.

2019-2022 urteetan sinatutako kontratuen kopuruaren bilakaera



Iturria: LANBIDEko Kabinete Teknikoko Azterketa, Azterlan eta Estatistika Zerbitzua. 2022/12/31.

⁵¹ Merkataritza, konponketa eta ibilgailu motordunak.



3.-Zientzia eta Berrikuntzaren hiria

Hiria zientzia eta berrikuntza-gune gisa nabarmentzen da, eta azken hamarkadetan lortutako emaitzek eta aintzatespenek agerian uzten dute hori. Apustu eta bilakaera positibo hori, era berean, I+G+b erakundeei, SEIC enpresei eta diziplina zientifiko eta teknikoetako prestakuntza-eskaintza zabalari lotutako tokiko ezagutza-sare garantzitsu batean oinarritzen da.

3.1.- Hiriko I+Ga


- Eremu horretan 6.000 pertsona inguru ari dira lanean, eta urtean 277 milioi eurotik gorako inbertsioa egin dute.
- Hiriaren I+Ga BPGren % 3,6 da. Proportzionalki ehuneko hau gainontzeko lurralde eta EAE osokoa baino handiagoa da.
- 118 enpresa-proiektu berri erregistratu dira I+G+b arloan; hiriaren sortutako enpresa guztien % 8 dira.

3.1.1.- I+Gko jardueretan inbertitzea

Hazkunde handia I+Gko jardueretako inbertsioetan

I+Gko jarduerak hirian sortutako inbertsioa 277.230 milioi eurokoa da⁵².

Donostiako I+Gko inbertsioaren bilakaera (milaka €)



Iturria: EAEko I+Gko jardueren inkesta. Eustat. 2021eko abenduaren 31.

Inbertsioaren ezaugarriak...



- Azken bost urteetan % 23 inguruko erritmoan hazi da; hazkundea bizkortu egin da 2020 eta 2021 artean, eta % 10eko inbertsioa ekitaldi bakar batean egin da.
- I+Gko inbertsio-ratioak (1.476 €/biztanleko) ia bikoiztu egiten ditu Euskadiko (751 €/biztanleko) batzbestekoak, eta Bilbo Haundikoa (710 €/biztanleko), eta Madril (670,4 €/biztanleko) edo Nafarroa (591,9 €/biztanleko) bezalako erkidegoen gainetik kokatzen da.
- Hiriko BPGaren % 3,6 da, eta proportzio hori EAEkoa (% 2,1), Gipuzkoakoa (% 2,7) eta EB 27koa (% 2,3) baino handiagoa da.

Funtsen jatorria eta I+Gko inbertsioa, diziplinen arabera

Funtsen jatorria, neurri handi batean, sektore publikotik datozen ekarpenei dagokie (% 46,7), eta, ondoren, enpresek egindako ekarpenei (% 37,6). Ekarpenei pribatuak EAEn erregistratutako mailatik behera daude (20 puntu inguru azpitik).

Nolanahi ere, nabarmentzekoa da atzerriko funtsen inbertsioak hiriaren duen pisua konparatiboa (% 12), EAErekin (% 8), erkidegoko edo beste erakunde publiko batzuetako programetatik eratorritako funtsekin eta nazioarteko sektore pribatuarekin alderatuta.

I+Gko inbertsioaren banaketa funtsen jatorriaren arabera 2021. Donostia vs. EAE




Iturria: EAEko I+Gko jardueren inkesta. Eustat. 2021eko abenduaren 31. Atzerriko funtsak: Europar Batasunaren diru-laguntzak (Europar Batasuneko programak), nazioarteko agentziak eta bestelako erakundeak eta atzerriko herrialdeak. Erakunde pribatuetatik datozen funtsak: I+G egiten duten enpresen funts propioak, eta enpresa pribatuak, publikoak eta ikerketa-zentroek egiten dieten finantzazioa.

⁵² 2022 daturik ez dagoenez, 2021eko ekitaldia hartzen da erreferentzia-urtetzat.

Diziplinen arabera, ingeniari-tza arloko inbertsioa gutxi gorabehera I+Gko inbertsio osoaren % 53koa da. Era berean, EAErekin alderatuta, Donostiak zientzia medikoetan (% 17 vs. % 11,6) eta zientzia zehatzetan (% 15,4 vs % 7,9) egindako inbertsioaren pisua nabarmentzen da. Dibertsifikazio horrek prestakuntza maila handiagoa eta etorkizuneko giltzarrietan kokapen estrategiko hobeago bat eskaintzen dizkio hiriari.

I+Gko inbertsioaren banaketa, eremu edo diziplina zientifikoaren arabera 2021 Donostia vs. EAE



Iturria: EAEko I+Gko jardueren inkesta. Eustat. 2021eko abenduaren 31.

2022 urtean Next Generation EB funtsen bidez lortutako finantzazio-lerroen optimizazioak lagundu du errealtate hori gauzatzen, hirirako oso berritzaileak diren proiektuak bultzatu ahal izan dira hainbat arlotan, hala nola: sektore publikoaren eta ekonomia-sarearen digitalizazioan eta lehiakortasunean (merkataritza-sektorea, aisialdi-turismoa, etab.), eraikin publikoen birgaitzean, mugikortasun iraunkorrean eta abarretan.




3.2.- Ekintzailatza berritzailea

I+G+b arloko enpresa berrien etengabeko hazkundera

2022an, Gipuzkoako hiriburuan enpresa berri ugari sortu ziren I+G+b arloan; guztira, 118 enpresa-proiektu berri sortu ziren, 2021ean lortutako maila altua gainditzen duena (115 proiektu berri), eta hirian sortutako enpresa guztien % 8.

Donostiako I+G+b jardueretan alta emandako enpresen bilakaera 2018-2022



Iturria: I+G+B jardueretako epigrafeetako jarduera ekonomikoaren gaineko zerga. 2022ko abenduaren 31.

3.3.- I+Gko enplegua

Azken urteotako I+Gko enpleguaren aurrerapen garrantzitsua


Enpleguari dagokionez, hirian zientziaren eta berrikuntzaren aldetik apustuak 5.954 pertsonarentzako lana sortzeko aukera ematen die, hau da, dedikazio osoko 4.073 lanpostu guztira⁵³.

Hirian % 34 baino gehixeago hazi da lan-profila, azken sei urteetan dedikazio osoko langileei dagokienez. Aurrerapauso handia izan da, EAEn bizi izandako hazkunde-erritmoa baino askoz handiagoa (% 14,2)⁵⁴.

I+Gko enpleguak ekarpen handia egin dio Gipuzkoari eta EAERI

Euskadik I+Gn enpleguari ekarpen handiena egiten dion euskal hiriburua da Donostia (guztizkoaren % 20)⁵⁵. Ildo beretik, dedikazio osoko I+Gko enpleguak Donostiako biztanleria aktiboaren aldean duen garrantzia (% 4,6) Euskadin dagoenaren bikoitza da⁵⁶.

I+Gko langileen bilakaera Donostian, 2015 - 2021



Iturria: I+Gko jardueren inkesta. Eustat. 2021ko abenduaren 31.

⁵³ Dedikazio osoko langileak.

⁵⁴ Erreferentzia-aldia 2015 - 2021.

⁵⁵ Erreferentzia-urtea 2021.

⁵⁶ I+Gko jardueren inkesta eta Eustaten jarduerari buruzko Biztanleria Inkesta.

Emakumeen ordezkaritzaren igoera, EAEko maila baino handiagoa


Hirian I+Gko langileak modu orekatuan banatzen dira generoaren arabera (% 53,5 gizon eta % 46,5 emakume⁵⁷).

Hala, eremu horretako emakumeen ordezkaritza...

- Azken urteetan 1,4 ehuneko-puntu igo da⁵⁸.
- EAEn marraztutako errealitatea baino orekatuagoa da; izan ere, ikertzaileen artean emakumeen parte-hartzea % 37koa da EAEn, hirian lortutako maila baino 9,5 ehuneko-puntu txikiagoa.

Nolanahi ere, hiriak I+Grekin lotutako enpleguetan genero-ordezkaritza orekatua lortzen duen arren, STEM graduetan edo zikloetan dauden emakumeen presentzia, kasu askotan, % 20 edo % 10 baino txikiagoa da ("fisika"; "elektrizitatea eta elektronika"; "fabrikazio mekanikoa"; "informatika eta komunikazioak"; "instalazioa eta mantentze-lanak"; eta "ibilgailuen garraioa eta mantentze-lanak").

Emakumeen ordezkaritza I+Gko langileen artean



⁵⁷ Bai emakumeen eta gizonen berdintasun eraginkorrerako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoak, bai EAEko emakumeen eta gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legeak, uste dute ordezkaritza orekatua dagoe-la bi sexuak gutxienez % 40an ordezkatuta daudenean.

⁵⁸ Erreferentzia-aldia: 2017-2021.

3.4.- Talentuaren sustapena hirian

Duela bi hamarkada baino gehiago, Donostiak zientzian eta eza-gutzan oinarritutako eredu sozioekonomikoaren aldeko apustua egin zuen, eta, gaur egun, berrikuntza-polo erreferente bihurtu da.

Kapital intelektuala, talentua eta ekosistemako eragileen arteko banaketa ezinbestekoak dira eredu sozioekonomiko horren aldeko apustua berresteko eta indartzeko.

Alde horretatik, donostiar gazteen artean bokazio berriak bultzatu eta sortzeko erronkari aurre egiten dio hiriak, bai eta nazioarteko talentua diziplina zientifiko eta teknikoetan leialtzeko eta erakartzeko erronkari ere.

Hezkuntza-eskaintza eta ikasleak diziplina zientifiko eta teknikoetan (STEM⁵⁹)

Gaur egun, diziplina zientifiko eta teknikoetako hezkuntza-eskaintzak 50 gradu, gradu bikoitz eta master ditu unibertsitatean, eta 30 ziklo, ikastaro eta espezializazio programa ditu Lanbide Heziketan.

2021 – 2022 ikasturtean ikasle hauek zeuden diziplina zientifiko eta teknikoetako ikasketetan:

- Lanbide Heziketaren kasuan, 3.183 ikasle, honela banatuta: 246 oinarritzko prestakuntzan, 1.061 erdi mailan eta 1.876 goi mailan.

- 6.000 lagun inguru unibertsitatean⁶⁰.


Emakume gutxi Lanbide Heziketako diziplina zientifiko eta teknikoetan

Lanbide Heziketa oso esparru maskulinizatua den arren, adar zientifiko eta teknikoen moduluen kasuan, errealitate hori are nabarmenagoa da, matrikulatutako ikasleen % 72 gizonak baitira; %96 oinarritzko Lanbide Heziketan, %72 goi-mailako Lanbide Heziketan eta 66 erdi-mailako Lanbide Heziketan.


Bestalde, emakumeak dira nagusi (% 75-80) pertsonak zaintzera bideratutako lanbide-arloetan, hala nola “Hezkuntza”, “Osasuna eta gizarte-zerbitzuak”, “Gizarte-zientziak” edo “Gizarte, kultura eta komunitate-zerbitzuak”.

Lanbide Heziketan matrikulatutako ikasleak. 2021/2022 ikasturtea


Oinarritzko LH



Erdi-mailako LH



Goi-mailako LH



⁵⁹ Science, Technology, Engineering and Mathematics akronimoa.


⁶⁰ 5.990 ikasle 2020-2021 ikasturtean.

STEM diziplinetan emakume gutxi egotea errealitate bat da unibertsitatean ere

Unibertsitateak ez dira errealitate horretatik at geratzen; izan ere, Donostian diziplina zientifiko eta teknikoetako unibertsitate-gradu etan matrikulatutako hamarretik 7 gizonak dira, hau oso nabaria da ingeniartzan, matematikan eta fisikan besteak beste.

4 unibertsitate-gradu baino ez dira identifikatzen (guztira 29), non matrikulatutako emakumeen kopurua gizonezkoena baino handiagoa den: “Kimika”, “Ingeniaritza biomedikoa”, “ADE eta Ingeniaritza Informatikoko gradu bikoitza” eta “Diseinu Industrialeko eta Produktuaren Garapeneko Ingeniaritza”.

2020-2021ean unibertsitateetan zientzia eta tekniketako gradu etan matrikulatutako unibertsitateko ikasleak



Iturria: Unibertsitate-estatistika 20-21 Eustat.

3.5.- Berrikuntza, eredu ekonomikoaren apustua

Gaur egun, Donostia erreferentziatzeko hiria da nazioarteko punta-puntako eremuetan:

- **Biozientziak:** abangoardiako ikerketa eta ekoizpen-sarea du Donostiak terapia aurreratuetan (terapia zelularrak, genikoak eta onkologikoak).
- **Nanozientzia:** Gipuzkoako hiriburutik munduko grafenoaren % 30 baino gehiago merkaturatzen da, atomo bakarreko lodierako nanomateriala.
- **Material berriak:** hiria, 20 urtetik gorako ibilbidea duena, erreferentzia da Europan polimeroen azterketan eta garapenean. Donostiak badu atomizagailu bat, balio erantsi handiko hauts metalikoak fabrikatzeko Europan bakarra, automobilgintzarako, aeronautikarako, osasunerako edo energiarako.

Hala ere, aurreko bi hamarkadetan egindako ahalegina bezain garrantzitsua da etorkizuneko ikuspegia izatea, berrikuntzaren eta ezagutzaren aldeko apustu irmoarekin.

- **Elektromugikortasuna:** hiriak arlo honetako entitate eta proiektu estrategikoak ditu, etorkizun jasangarriarako duen konpromisoarekin zuzenean lerrotatutakoak.
- **Adimen artifiziala:** Donostiako enpresa askok adimen artifiziala beren industria, merkataritza, turismo edo osasun-errealitatean txertatzeko apustua egin dute. Esparru horretako lehen unibertsitate mailako formakuntzak eskaintzen hasi dira hirian.
- **Teknologia kuantikoak:** superkonputazioko ikerketa-egitura garrantzitsua du hiriak, 10 zentrotan eta 300 ikertzailetan oinarritutakoak.



Tokiko I+Garen etorkizunean inbertitzen

Aurreko bi hamarkadetan egindako ahalegina bezain garrantzitsua da etorkizuneko ikuspegia izatea, berrikuntzaren eta ezagutzaren aldeko apustu irmoarekin, hiriaren garapen ekonomiko eta sozialaren eredu gisa.

Horregatik, funtsezkoa da hiria erronkekin bat etorri nahi duten esparruak identifikatzea eta norabide horretan apustu estrategikoak egitea. Alde horretatik, honako hau nabarmendu behar da:

• **Hiriak eremu publiko berri baten aldeko apustua egin du, Talent House II,** berrikuntzaren eta ekintzailetzaren arloetan erreferentzia dena, tokiko talentuaren gaitasunak indartzeko eta enpresa-proiektu berritzaileen garapena eta hazkundera bultzatzeko, hori guztia tokiko ekosistema lotuz eta hiria nazioartean kokatuz.

• **Azpimarratzekoa da hiriko azpiegitura zientifiko garrantzitsue-na izango den horretan egingo den inbertsioinbertsio handia (55 milioi euro):** IBMren ordenagailu kuantikoa, nazioarteko seigarren ordenagailua -AEBn, Alemanian, Japonian, Kanadan eta Hego Ko-rean kokatutakoen atzetik -, 2024aren amaieran ezarriko dena.

• **Fabrika proiektua,** erakundeen kultura-trantsiziorako diseinatu-tako errendimendu handiko zentroa.

• **Proiektu berritzaileen garapena Eskuzaitzeta industrialdean,** mugikortasunarekin (MUBIL), klima-aldaketaekin (Naturklima) edo beste material batzuen ekoizpenarekin (Biotech Foods: haragi kultibatuaren kasua) lotutakoak.

• **GOE (Gastronomy Open Ecosystem) gune berria,** ikerketa eta be-rrikuntza gastronomikoa sustatzeko.

Etorkizuneko I+G guneak Donostian



- Ekitaldiak / MICE**
- Passion for Knowledge
 - Donostia Innovation Week
 - Bioequity
 - SS Gastronomika
 - Intern Aguas kongresua

●	Ekintzailetza eta berrikuntza	Talent House II: talentuaren garapena eta erakarpena Fabrika: Erakundeen kultura-trantsiziorako errendimendu handiko zentroa	●	Kuantikoa	IBM : munduko 6. ordenagailu kuantikoa (55 M €-ko Inbertsioa) DIPC: 300 ikerlari berri
●	Industriarako zerbitzu aurreratuak	Zuatzuko zerbitzu aurreratuen gunea	○	Elektromugikortasuna	Elektromugikortasun Hub-a (Mubil, CIDETEC, Tecnalia, Vicomtech)
●	Parke teknologikoaren zabalkundera		○	Jakintzaren industrializazioa	Viralgen Biotech foods
●	Gastronomia	GOE (Gastronomy Open Ecosystem) Talento Gastro NEXT (belaunaldi-aldaketa)	○	Adimen Artifiziala	MIT City Science Lab



4.-Lurralde begirada

Hirian zehar luzetara eginiko begirada honek, udalaren hiri bilbeari lotutako dinamiken protagonista diren funtsezko bi eragileetan jartzen du arreta. Hala bada, azken kapitulu honetan, hiriko auzoei lotutako maila sozioekonomikoa eta bizi kalitatea azaltzen dira. Begirada hau osatzeko ehun ekonomikoaren dinamikak aztertu dira, begirada horretan integratuz bai lurzoru urbanizatuko enpresa-sarea bai hiriko jarduera-poligonoak.

4.1 Gure auzoak

Errealitate mikrolokala behatzea, hiri espazioa “zatitzea” eta auzoen ezaugarriak datu hotz eta objektiboetan “neurtzea” mailak eta tarteak ezarri, errealitate konplexu, askotariko eta dinamiko bat trazu gutxitan “sinplifikatzeko” zailtasunari aurre egiten behar dion zeregina da.

Alde horretatik, hasteko, egokia dirudi jarraian azpimarratzea, ezen, adierazle sintetiko bidez azaltzen diren informazio objektiboak erretratu konplexuago baten trazu gisa interpretatu behar direla; bestalde, erretratu horretan kontuan hartu beharko lirateke, gutxienez, auzoen abiapuntuko aztarna soziologikoa, auzoen bizi zikloak eta espazioen konplexutasuna eta aniztasuna.

Pertsonen bezala, auzoek ere bizi-ziklo bat islatzen dute, hiriaren kohesio-maila baldintzatzen duena, zalantzarik gabe. Epigrafe honetan modu sintetikoan deskribatzen da auzo bakoitzaren egoera, 2022. urteko 7 adierazle hauen zifren bidez.

1. 2022ko biztanle-kopurua (kop. eta %);
2021-2022ko biztanleriaren bilakaera.
2. Etorkinen kopurua 2022; Auzoko biztanleriarekiko irudikapena.
3. Zahartze-tasa 2022 (65 urtetik gorakoen %).
4. Unibertsitate-ikasketak dituen biztanleriaren proportzioa.
5. Langabetuen pisua biztanleria guztiarekiko 2022⁶¹.
6. Etxebizitzaren salerosketaren batez besteko prezioa m²-ko 2022ko IV. hiruhilekoa⁶².
7. Errenta pertsonalaren maila 2020⁶³.

Erdialdea eta Gros: Auzo “zahartuagoak”: bi eremu horiek donostiarren bostena biltzen dute, eta zahartze-tasak, berez, hiriko tasa handia (% 25,3) baino handiagoak dira. Hezkuntza-maila handiko auzoak dira, errenta-maila handikoak, eta etxebizitzetan metro karratuko preziorik altuenak dituzte. Erdialdeko auzo horiek, Amara eta Ekialdeko Barrutiarekin batera, biztanle migratzaile gehien biltzen dituzte, hiriko batez bestekoaren gainetik (% 9,7).

Erdialdea		
1	22.149 bizt. (+%4,8)	2º
2	2.702 bizt. (%12,2)	2º
3	%30,5 > 65 urte	2º
4	%36 unib.	1º
5	%3,3	6º
6	5.928,8€/m ²	1º
7	32.154€	4º

Gros		
1	18.072 hab. (-%4,1)	4º
2	1.995 hab. (%11,0)	4º
3	%31,8 > 65 urte	1º
4	%31 unib.	4º
5	%3,5	7º
6	5.557,0€/m ²	2º
7	27.741€	7º

⁶¹ Iturria: Lanbide.

⁶² Iturria: Higuezinen salerosketari buruzko estatistika. 2022. Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila.

⁶³ Iturria: Errenta pertsonal eta familiarrari buruzko estatistika 2020. Eustat.

Amara Berri, hiriaren zabalgunea eta auzo jendetsuena, biztanleriaren hazkundera izaten jarraitzen duena, migrazio-fenomenoari esker. Auzoko biztanleen hezkuntza-maila erdiko auzoetakoaren antzekoa da, eta batez besteko indize sozioekonomikoak ditu.

Amara Berri		
1	30.477 bizt. (+%4,9)	1º
2	3.109 bizt. (%10,2)	1º
3	%25,9 > 65 urte	4º
4	%31 unib.	6º
5	%3,8	9º
6	4.742,0€/m²	6º
7	26.298€	10º

Egia		
1	14.611 bizt. (-%4,4)	7º
2	1.372 bizt. (%9,4)	6º
3	%25,2 > 65 urte	6º
4	%24 unib.	9º
5	%4,1	11º
6	4.220,2€/m²	9º
7	22.683€	13º

Antiguo – Ondarreta/Ibaeta eta Aiete, eremu finkatuak eta sozioekonomikoki aberatsak.

Antzeko biztanleria kopurua dute. **Igeldorekin** batera, errentari eta/edo biztanleriaren okupazio-mailari dagokienez egoera sozioekonomiko fidagarria dute

Aiete		
1	14.614 bizt. (+%3,8)	6º
2	845 bizt. (%5,8)º	9º
3	%20,7 > 65 urte	14º
4	%34 unib.	2º
5	%2,9	4º
6	4.814,1€/m²	5º
7	33.256€	2º

Antiguo-Ondarreta		
1	14.295 bizt. (+%1,6)	8º
2	1.050 bizt. (%7,3)	7º
3	%28,6 > 65 urte	3º
4	%34 unib.	3º
5	%2,8	3º
6	5.419,1€/m²	3º
7	32.176€	3º

Ibaeta		
1	10.082 bizt. (+%2,3)	9º
2	751 bizt. (%7,4)	10º
3	%19,6 > 65 urte	17º
4	%31 unib.	7º
5	%4,0	10º
6	4.615,6€/m²	7º
7	29.845€	6º

Igeldo		
1	1.068 bizt. (-%0,2)	16º
2	83 bizt. (%7,8)	16º
3	%20,9 > 65 urte	12º
4	%24 unib.	10º
5	%2,3	2º
6	n.d.	
7	27.741€	12º

Miramón-Zorroaga biztanleria geroz eta handiagoa da; ikasketa-maila altua duen biztanleria ia okupazio-maila osora iristen da, eta horrek agerian uzten du hiriko errenta pertsonalaren maila handiagoa dela.

Miramon-Zorroaga		
1	2.447 bizt. (+%3,6)	5º
2	174 bizt. (%7,1)	14º
3	%21,0 > 65 urte	11º
4	%31 unib.	5º
5	%0,8	1º
6	5.092,6€/m²	4º
7	40.073€	1º

n.d.: Datuak ez daude eskuragarri

Ekialdeko barrutia, biztanlerian nabarmen hazten diren auzoak eta sozioekonomiari dagokionez zaugarritasun handiagoa erakusten dutenak osatzen dute. Hiria ekialdean dauden **Altza** eta **Intxaurrondo** auzoak biztanleria-hazkunde handia izan dute. Hala ere, **Mirakruz - Bidebieta** eta **Martutene** bezala, oinarritzko hezkuntza-maila duten pertsona asko dago, baita langabezia-tasa altuagoa ere. Egoera soziolaboral horrek eskualde horretako batez besteko errenta-maila ere baldintzatzen du, eta hiriko errenta pertsonalaren mailarik apalenak ditu.

Intxaurrondo			Altza			Martutene			Mirakruz-Bidebieta		
1	15.696 bizt. (+%9,0)	5°	1	20.343 bizt. (+%9,9)	3°	1	2.700 bizt. (+%1,3)	3°	1	8.865 bizt. (+%0,7)	10°
2	1.545 bizt. (%9,8)	5°	2	2.210 bizt. (%10,9)	3°	2	256 bizt. (%9,5) °	13°	2	953 bizt. (%10,8)	8°
3	%21,0 > 65 urte	10°	3	%24,6 > 65 urte	8°	3	%20,4 > 65 urte	15°	3	%24,9 > 65 urte	6°
4	%18 unib.	13°	4	10% unib.	17°	4	%14 unib.	16°	4	%16 unib.	15°
5	%5,9	16°	5	%5,0	14°	5	%4,7	12°	5	%4,9	13°
6	3.189,0€/m²	12°	6	2.614,8€/m²	14°	6	n.d.		6	2.971,7€/m²	13°
7	20.967€	14°	7	17.939€	18°	7	19.979€	16°	7	20.844€	15°

Loiola – Txomin, hirigintza-garapen berriak, auzo “gazteenak” Hiriko biztanle gazteenak biltzen ditu eremu horrek, eta zahartze-tasa txikiena duen eremua da. Erdi-mailako adierazle sozioekonomikoak ditu, biztanleria langabeari eta errenta pertsonal ertainari dagokienez, eta, aldi berean, etxebizitza libre eta babestuen parke batean banatutako biztanleria askotarikoa biltzen du.

Loiola-Txomin		
1	6.274 bizt. (+%0,0)	11°
2	648 bizt. (%10,3)	11°
3	%18,5 > 65 urte	17°
4	%20 unib.	12°
5	%5,6	15°
6	3.661,4€/m²	11°
7	21.019€	13°

Gainerako auzoak: Ategorrieta – Ulia, Añorga eta Zubietta, biztanleria-tamaina txikiagoko eremuak dira, 2021 eta 2022 bitartean biztanle-kopuruan igoera handiena izan dutenak.

Ategorrieta – Ulia			Añorga			Zubietta		
1	4.096 bizt. (+%4,3)	12°	1	2.635 bizt. (+%5,6)	14°	1	298 bizt. (+%0,4)	17°
2	373 bizt. (%9,1)	12°	2	163 bizt. (%6,2)	15°	2	18 bizt. (%6,0)	17°
3	%24,7 > 65 urte	8°	3	%21,6 > 65 urte	10°	3	%20,8 > 65 urte	14°
4	%29 unib.	8°	4	%23 unib.	11°	4	%17 unib.	14°
5	%3,6	8°	5	%3,1	5°	5	%3,3	6°
6	4.486,5€/m²	8°	6	3.744,2€/m²	10°	6	n.d.	
7	29.976€	5°	7	26.913€	9°	7	25.982€	11°

4.2. Lurraldea eta jarduera ekonomikoa

4.2.1 Jarduera ekonomikoa bizitegi-lurzoruan

Bizitegi-sareak kontzentrazio handia du hiriko hiru auzotan: Alde Zaharra-Erdialdean, Grosen eta Amara Berrin. Gune horiek establezimenduen % 47,3k eta hiriko enpleguaren % 33,3k hartzen dituzte beraian. Horien ondoren, hiri-zabalkuntza eta hedapen mailari dagokionez, Antiguoa-Ibaeta eta Egia daude, establezimenduen % 22,1 eta enpleguaren % 28,5 biltzen baitituzte. Ekialdeko Barrutia osatzen duten auzoek, berriz, hiriko enpleguaren % 13,5 eskas biltzen dute, nahiz eta Donostiako biztanleen % 23,68 bertan bizi den.

Donostiako Erdialdea - Alde Zaharra: hiriko merkataritza eta ostalaritza gune nagusia

Alde Zaharrean 4.241 enpresa-establezimendu daude (hiriaren guztizkoaren % 23) eta hiriko enpleguaren % 18 sortzen dute. Neurri handi batean, merkataritza- eta ostalaritza-eremu nagusia da, bai Gipuzkoa osorako, bai Donostia-Baiona mugaz gaindiko ardatzean bizi diren herritar gehienentzat.

Izan ere, Erdialdeak, 2022an txikizkako 933 denda izanik, Donostiako txikizkako merkataritzaren % 40 eta ostalaritza-eskaintzaren % 45 biltzen ditu⁶⁴, eta horrek 1.000 biztanleko 42 eta 23 establezimenduren merkataritza- eta ostalaritza-dentsitatea adierazten du, hurrenez hurren.

Erdiko gune horrek eskaintza komertzial, tertziario, kultural eta aisialdiko eskaintza du, tokiko merkataritza, marka multinazionalak eta bi azoka-merkatu bateratzen dituen: Bretxako azoka⁶⁵ eta San Martingo azoka⁶⁶.

Gros, hiri-ekonomia garrantzitsu eta osagarriko gunea

Gros auzoak, berriz, enpleguaren % 7,5 eta 2.227 (%12,1) enpresa biltzen ditu, eta horietatik 438 saltokiak dira. Kultura, kirol, aisia eta ostalaritza-dinamismo handiko eremua da. 2022an, Gros auzoak merkataritza eta ostalaritza-dentsitate handia zuen (24 eta 13 establezimendu 1.000 biztanleko), Alde Zaharreko merkataritza eta ostalaritza-eskaintza osatuz.

Amara Berri, Antiguoa eta Egia, garrantzi ekonomiko ertaineko eremuak

Amara Berri (2.256 enpresa 2022an), Antiguoa 1.399 enpresa) eta Egia (1.186 enpresa) idibidualki hiriko enpleguaren % 5-8 inguru biltzen duten auzoak dira. Ibaetaren kasuan (1477 enpresa), enplegua nabarmen handiagoa da. Zuatzen enpresa parkea, Igarako poligonoa eta Unibertsitate Campusaren ondorioz. Azken gune honek hiri osoko enpleguaren %16 biltzen du.

Merkataritzari dagokionez, eremu horiek ere "batezbestekoaren barruan" daude, eta hiriko eguneroko ondasunen saltokien⁶⁷ antzeko dentsitate komertzialak dituzte (4,6 saltoki 1.000 biztanleko⁶⁸).

Ekialdeko barrutia

Intxaurrendok eta Altzak 1.940 enpresa inguru biltzen dituzte modu orekatuan, hiriko enpleguaren % 7,2 baino gehiago.

Mirakruz - Bidebieta eta Martutene auzoek biztanle gutxiago dituzte, eta 503 eta 438 enpresa besterik ez dituzte, hurrenez hurren.



⁶⁴ Jarduera ekonomikoaren direktorioa 2021..


⁶⁵ 26 lanpostu.

⁶⁶ 16 lanpostu.

⁶⁷ Elikadura, drogeria.

⁶⁸ Iturria: Jarduera Ekonomikoaren Direktorioa (Eustat 2022) eta Donostiako Udalaren 2022ko errolda.


Enpresen banaketa eta enplegua auzoka, 2022 (Enpleguaren pisu handienetik txikienera ordenatua)



Auzoa	Enpresak	Enpleguak
1.- Erdialdea	4.241	%18,1
2.- Ibaeta	1.477	%16,5
3.- Miramon-Zorroaga	527	%14,9
4.- Amara Berri	2.256	%7,8
5.- Gros	2.227	%7,5
6.- Antiguo-Ondarreta	1.399	%6,7
7.- Añorga	623	%5,9
8.- Egia	1.186	%5,3
9.- Intxaurrondo	970	%4,5
10.- Altza	964	%2,7
11.- Aiete	827	%2,7
12.- Martutene	438	%2,3
13.- Mirakruz-Bidebieta	503	%1,7
14.- Ategorrieta-Ulia	232	%1,6
15.- Loiola-Txomin	312	%1,3
16.- Igeldo	104	%0,4
17.- Zubieta	66	%0,0

Iturria: Jarduera ekonomikoen direktorioa (DIRAE). Eustat 2022.

Donostiako txikizkako merkataritzaren eta merkataritza-dentsitatearen banaketa auzoka, 2022
(merkataritza-dentsitate handienetik txikienera ordenatua)




Auzoa	Saltoki kop.	Merkataritza-dentsitatea
1.- Erdialdea	933	42,12
2.- Gros	438	24,24
3.- Antiguu-Ondarreta	180	12,59
4.- Martutene	28	10,37
5- Zubieta	3	10,6
6.- Amara Berri	299	9,81
7.- Intxaurrondo	134	8,54
8.- Egia	111	7,60
9.- Añorga	29	7,08
10.- Mirakruz-Bidebieta	59	6,66
11.- Altza	128	6,29
12.- Ibaeta	62	6,15
13.- Miramon-Zorroaga	10	4,09
14.- Igeldo	4	3,75
15.- Loiola-Txomin	21	3,35
16.- Ategorrieta-Ulia	8	3,04
17.- Aiete	35	2,40

- 4 saltoki baino gutxiago/1.000 bizt.
- 5 eta 9 saltoki artean/1.000 bizt.
- 10 eta 19 saltoki artean/1.000 bizt
- 20 eta 39 saltoki artean/1.000 bizt.
- 40 saltoki baino gehiago/1.000 bizt

Iturria: Jarduera ekonomikoen direktorioa (DIRAE). Eustat 2022.



Donostiako ostalaritza-banaketa eta ostalaritza-dentsitatea auzoka, 2022 (merkataritza-dentsitate handienetik txikienera ordenatua)



Auzoa	Establezimendu kop.	Ostalaritza-dentsitatea
1.- Erdialdea	510	23,03
2.- Igeldo	24	22,47
3.- Gros	227	12,56
4.- Miramon-Zorroaga	24	9,81
5.- Antiguo-Ondarreta	102	7,14
6.- Martutene	19	7,04
7.- Ibaeta	62	6,15
8.- Añorga	15	5,69
9.- Egia	73	5,00
10.- Loiola-Txomin	31	4,94
11.- Amara Berri	143	4,69
12.- Ategorrieta-Ulia	16	3,91
13.- Intxaurrondo	59	3,76
14.- Mirakruz-Bidebieta	32	3,61
15.- Altza	72	3,54
16.- Aiete	27	1,85
17.- Zubieta	8	26,8

- 4 establezimendu baino gutxiago/1.000 bizt.
- 5 eta 9 establezimendu artean/1.000 bizt.
- 10 eta 19 establezimendu artean/1.000 bizt.
- 20 establezimendu baino gehiago/1.000 bizt.

Iturria: Jarduera ekonomikoen direktorioa (DIRAE). Eustat 2022ko abendua.



Foto: Donostia San Sebastián Turismoa

4.2.2 Jarduera ekonomikorako lurzorua. Jarduera-poligonoak.

Donostiak jarduera ekonomikorako 3.535.752 m² ditu guztira, 2010az geroztik indarrean dagoen Hiri Antolamenduko Plan Orokorren arabera. Horien % 53 erabilera industrialerako da eta % 47 hirugarren sektorerako.

Gure hirian, beste hiri eremu batzuetan modu orokorrean gertatu den bezala eta planifikatutako jarduera ekonomikorako erabilera alde batera utzita, aldaketa handiak izan dira jarduera ekonomikoaren egiturari eta kokapenari dagokionez. "Industrialde" deritzenak, espezializazio funtzionaleko gune gisa, izan dira sistema ekonomiko-produktiboaren lurralde-aldaketa horiek modu esanguratsuago batean bizi izan dituztenak. Hala ere, gaur egun, poligono periferikoak edo hiri-ingurukoak ezin dira soilik industria-leku gisa identifikatu; izan ere, jarduera logistikoak, komertzialak eta, oro har, zerbitzuetakoak ere biltzen dira bertan ere.. Horregatik, horiek jarduera-poligonotzat hartuko ditugu, hots, jarduera ekonomikoak biltzen dituzten industria-lurzoru, lurzoru-tertzario edo lurzoru-mistoko eremutzat.

Hala, 1566 enpresak egiten dute lan hiriko 8 jarduera-poligonoetan, eta gune horiek ezinbestekoak dira gure hiriaren egitura ekonomiko ulertzeko.

Hirugarren sektoreko eta industriako azalerari dagokionez, hirian bidezko banaketa bat egon arren, jarduera ekonomikoko poligonoek zerbitzu enpresa gehiago biltzea lortzen dute, eta hori hirugarren sektoreko sektoreak gure ekoizpen-egituran duen pisu handiaren isla da. Espazio horien aniztasuna, funtzionala izateaz gain, neurri batean kokalekuak zehazten duena, dimentsioan islatzen da ere, ez okupatzen duten azalerarengatik dagokionez, baizik eta bertan dauden enpresen kopuruarengatik.

Hiriak, Zubieta- Zubieta garraio zentroa eta Eskuzaitzeta- (% 45), Añorga- Cementos Rezola, Rekalde eta Belartza- (% 28), Martutene -Torrua Zahar, Mateo Gaina eta Antondegi- (% 25) eta Altza (% 2) auzoetan kontzentratzen du industria-lurzorua; hirugarren sektoreko jarduera, berriz, intentsiboki kokatzen da hiriaren mendebaldean, Antigua, Ibaeta eta Miramon auzoetako azalera tertziarioaren %60 hartuz.

27. poligonoan (200.831m²), erreferentziatzako industria-gunean, industria mekanikoari eta metalikoari lotutako 80 enpresa baino gehiago; halaber, industrialdeko jardueraren % 25 handizkako merkataritzako enpresek osatzen dute.. Bestalde, Papin (33.068m²) ere hiriaren ekialdean dago, eta industria-izaera nabarmena du (enpre-

sa guztien % 54). Hala ere, bere tamaina ez da oso esanguratsua, hiriko beste poligonoetakoarekin adierazuz.

Belartzako industrialdeak (373.624m²) erabileren nahastearen fenomeno irudikatzen du. Hiru jardueratik bat beste enpresa batzuetara edo logistika, banaketa eta garraiora bideratutako zerbitzuak dira, eta industria-jarduera nabarmena ere badu (% 25).

Jarduera-poligono horien kokalekua aztertzeak, beste hiri-eremu batzuekin integratzeak edo eta bide-koridoreekiko hurbiltasunak baldintzatu egiten dute, hein handi batean, azkenean gune horiek hartzen duten funtzionaltasuna. Adibidez, Zubietan (248.904m²) eta Errekalden (61.902m²), handizkako merkataritzak eta banaketa-enpresek- eta logistika-enpresek protagonismo handia hartzen baitute (% 60).

Industria-lurzoru kualifikatua eta ezagutzaren industriarako lurzoruaren garapena. Zuatzu eta Miramon, hiriko ezagutzearen poloak.


Mendebaldeko eremua, eta bereziki Ibaeta eta Miramon guneak, jarduera ekonomikora bideratuta daude nagusiki, eta egoiliarren ratioa 0,4koa da sortutako lanpostu bakoitzeko.

Ibaetako eremuak 1.500 enpresa inguru ditu, hiriko enpleguaren % 16 baino zertxobait gehiago. Horrek agerian uzten du unibertsitate-profil nabarmena duela (UPV/EHU eta Nafarroako Unibertsitatea), eta enpresei zuzendutako zerbitzu ugari biltzen dituela, Zuatzu eta Portuete-igarako erakunde ugari egindako jarduerari esker. Aipatzekoa da Igar eta Zuatzu industrialdeetan jarduera ekonomikorako lurzorian dauden enpresen % 64 biltzen dela.

Bi poligonoak hirugarren sektorekoak dira batez ere. Zuatzu industrialdeari dagokionez (137.932m²), enpresentzako zerbitzuak dira nagusi (% 65); industria, berriz, oso txikia da, eremu horretan dauden enpresen % 10 baitira. Era berean, Igarako industrialdean, enpresen % 70 inguru enpresa-zerbitzuetara bideratzen da, eta ia ez dago industriarik (% 5).

Miramongo teknologia-parkea (573.771m²) hirugarren sektorekoa da nagusiki, eta Ezagutza Intentsiboak diren Zerbitzu enpresen erdiak inguru biltzen ditu (SEIC), hau da, parkean dauden 4 enpresatik 1.

Enpresa-sarea jarduera-poligonoetan



Poligonoa	Enpresa kopurua
1.- Igara	670
2.- Zuatzu	327
3.- 27 Poligonoa	264
4.- Miramon Parke Teknologikoa	158
5.- Belartza	81
6.- Zubieta	29
7.- Rekalde	28
8.- Papin	9

Miramón hiriaren eta lurraldearen gune biosanitario eta teknologiko gisa nabarmentzen da, honako hauek hartzen dituen neurrian:

- Donostiako Unibertsitate Ospitalea-OSI Donostialdea eta Gipuzkoako poliklinika.
- Gipuzkoa Technology Park, Parke Zientifiko eta Teknologiko gisa, non IKTei (% 31) eta Biozientziak/Osasuna arloari (% 22) lotutako 200 enpresa inguru dauden⁶⁹. Hiria SEICetako enpleguarengatik, batez ere teknologia berrietan oinarritutako SEICetako enpleguarengatik (SEIC-T), nabarmentzea ahalbidetzen du honek.⁷⁰.

Aipatu behar da osasun- eta teknologia-eremu garrantzitsu horretan 44.000 m²-ko hedapen handia proiektatu dela, ezagutzaren industrializazioarekin, kuantikoarekin, adimen artifizialarekin, ekintzailetzarekin eta berrikuntzarekin lotutako jarduera ekonomiko berriei erantzun eta harrera egin ahal izateko.

Bestalde, gastronomiaren arloko prestakuntzari eta ikerketari dagokionez, nabarmentzekoa da Miramón auzoan Basque Culinary Centerreko Zientzia Gastronomikoen Fakultatea dagoela.

Azkenik, ez dugu ahaztu behar Gipuzkoako industrialde handiena izango dena; Eskuzaitzeta izeneko industria-bokazioko eremu berri bat, 290.110 m²-ko lursailaren gainean eraikia, gaur egun dagoen industria-lurzorua defizita ordeztuko duena, eta ezarpen berriak ahalbidetuko dituena, aldi berean enpresa-posizionamendu teknologikoa (SEIC) eta gaur egun Gipuzkoako hiriburua bereizten dituena osatzeko.

Kapitulu hau ez dugu itxi nahi azpimarratu gabe, ezen, udalerri baten kohesioa elkarrekin erlazionaturik dagoela, bai auzoetan bizi diren pertsonengatik bai lurraldearen luze-zabalean hedatzen den ehun ekonomikoagatik, lurralde ikuspegi honetatik egindako azterketa apaletik ondoriozta daitekeenez, eta ez izan zalantzarik azterketa honetan aurrera egingo dugula, dokumentu honen etorkizuneko edizioetan begirada sakonagoa eskaintzeko.



